


JATORRI ANITZEKO
EMAKUMEEN
ONGIZATE ETA
GIZARTE-INKLUSIOA
JARDUERA FISIKO
EDOTA KIROLAREN BIDEZ



AURKIBIDEA

0. SARRERA	4. orr.
1. AZTERKETA ETA EGITASMO HONEN JUSTIFIKAZIOA ETA BEHAR SOZIALA	
1.1 SARRERA	6. orr.
1.2. 2/2023 KIROL ETA JARDUERA FISIKOAREN EUSKADIKO LEGEA	6. orr.
1.3. MUGIMENT GIPUZKOA	7. orr.
1.4. EMAKUMEOK MUGIMENDUAN PROGRAMA	7. orr.
1.5. GIPUZKOA EKITAKTIBOA	7. orr.
1.6. ERASMUS+ EUOPAR EGITASMOA (2023)	8. orr.
1.7. GIPUZKOAKO II ANIZTASUN FORU PLANA	8. orr.
1.8. BERDINTASUNA ETA IKUSPEGI INTERSEKZIONALA	8. orr.
 2. ESKU-HARTZE EGOKI ETA ARRAKASTATSUEN BILDUMA	11. orr.
2.1. KALTEBERATASUN EGOERAN DAUDEN GIZATALDEAK	
(Iturri nagusia: SIIS Gizarte Informazio eta Ikerketa Zerbitzuko azterlana, "Gizarte eta ekonomia bazterketa egoeran dauden pertsonen artean kirola sustatzea 2018")	11. orr.
A) EMAKUMEAK	11. orr.
B) JATORRI ANITZEKO PERTSONAK	16. orr.
2.2. "EMAKUME MUSULMANEN GIZARTE-INKLUSIOA JARDUERA FISIKOAREN BIDEZ SUSTATZEA"	20. orr.
2.3. MUGIMENT GIPUZKOA	26. orr.
a) Jarduera Fisikoaren Orientazio Zerbitzuak (JFOZ) edota Kirol Orientazio Zerbitzuak (KOZ)	
b) Desgaitasunari arreta	
c) Lehentasunezko populazio taldeak	
d) Patologiaren araberako Gidak	
e) Klubetan hobariak Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) onuradunei	
f) Emakumeok mugimenduan aterkipean ekitateari arreta: Jatorri aniztasuna +generoa+erlijioa uztartua.	
f.1) Donostian Haurralde Fundazioarekin (eta Mestiza elkartearekin)	
f.2) Ordizian Udalarekin eta Ordizia Kolore-rekin	
f.3) Bergaran Udalarekin diseinu fasean eta garapenean	
 3. SOZIALKI KALTEBERAK DIREN EDOZEIN GIZATALDEETAN JARDUERA FISIKO EDO KIROLA SUSTATZEKO OINARRIZKO PRINTZPIO ETA ESKU-HARTZEEN GIDA.	32. orr.
(Iturri nagusia: SIIS Gizarte Informazio eta Ikerketa Zerbitzuko azterlana, "Gizarte eta ekonomia bazterketa egoeran dauden pertsonen artean kirola sustatzea 2018")	
3.1. OINARRIZKO PRINTZPIOAK	32. orr.
3.2. OINARRIZKO ESKU-HARTZEAK	36. orr.
 4. JATORRI ANITZEKO EMAKUMEEN ONGIZATE ETA GIZARTE-INKLUSIOA JARDUERA FISIKO EDO KIROLAREN BIDEZ SUSTATZEKO BERARIAZKO GIDA.....	40. orr.
ERABILITAKO ITURRI NAGUSIAK	43. orr.
TXOSTENARI ERANSKINAK: PRINTZPIOAK ETA ESKU-HARTZEAK TEORIATIK MODU PRAKTIKORA:	
TOKIKO ESPERIENTZIA PILOTUETAN EZARRITAKOAK	45. orr.

0. SARRERA

Agiri honen helburua da gizartean kalteberatasun-egoeran dauden gizataldeen aktibotasuna eta gizarte-inklusioa sustatzea jarduera fisiko edota kirolaren bidez. Horretarako gako nagusiak emango dituen txostena eta gidaliburua eskaini nahi ditu Gipuzkoako Foru Aldundiko Jarduera Fisiko eta Kirol Zerbitzuak (aurrerantzean, GFA JFKZ). Kirol-sistemako eragileak herritar edota gizatalde horiei begira jartzea da lehenik lortu nahi dena, eta, horrekin batera, oztopo sozioekonomikoak dituzten gizataldeei zuzendutako kirol-politikak egiteko oinarritzko printzipio eta esku-hartzeen berri ematea, oro har. Eta, zehazki, generoa, klase soziala eta jatorri-aniztasuna uztartuta, jatorri anitzeko emakumeek dituzten oztopo nagusiak identifikatzea eta esku-hartze eraginkorrak mahaigaineratzea da lan honen asmoa.

Lan honen xede nagusia GIDALIBURU bat sortzea da. Gidak, lehenik, atal orokorra izango du, sozioekonomikoki egoera zaurgarrian dagoen edozein gizatalderekin eraginkorrak diren printzipio eta oinarri lagungarriak jasotzen dituen; eta, ondoren, berariazko gida, jatorri anitzeko emakumeentzako eraginkorrak eta sustatzaileak diren esku-hartzeak barneratzen dituen. Txosten honen bitartez, berariazko gida hau garatu da, bereziki, jatorri anitzeko emakumeekin jarduera fisikoa sustatzeko esku-hartze egoki eta arrakastatsuak eskaintzeko. Jatorri-aniztasunak inplizituki jasotzen du kultura ezberdinetako emakumeak izatea, bai eta erlijio ezberdinetakoak ere, erlijioa kultura baten parte baita; eta, bereziki, lanketa egin da islamaren inguruko baldintzatzaileak aintzat hartzeko.

Zergatik dago gidaliburu bat sortzeko beharra? Egoera zaurgarrian dauden gizataldeei begira hedatu nahi ditugun hainbat esku-hartze lagungarriren artean, bata gizatalde horiei begirako politikak egitean datzalako. Era berean, administrazio publikoek badute horiek sortzeko eta komunikatzeko erantzukizuna ere, gizatalde horietako norbanakoei aktibo izateko erraztasunak emateko eta gizarte-inklusioren prozesuan laguntzeko.

Gidaliburu hau tresna baliagarri gisa eskaini nahi zaie Gipuzkoako kirol-eremuko eragileei eta, bereziki, Gipuzkoako udalei. Horrela, asmoa du, batetik, ezagutza zientifikoan zein esperientziaren ezagutza oinarria duen egiteko modu eraginkorren informazioa emateko, eta, bestetik, beraien udalerrietako kirol politikan barneratzeko erraztasunak emateko, horretarako erremintak eskainiz. Gipuzkoako udaletako kirol-orientazioko zerbitzuetako kirol-orientatzaileentzat ere baliagarria izan daiteke. Bestalde, kirol-eremutik haratago, beste hainbat eremutako eragileei (berdintasuna, migrazioa eta kultura-aniztasuna, gizarte-zerbitzuak, hezkuntza eta kultura, esaterako) zuzendutako gida izan daiteke baita ere, zeharkakotasunez lan egitea ezinbestekoa izango delako aipaturiko gizataldeak benetan artatu eta gizarteko partaide errealak izatea erraztu nahi badugu.

Azterlan edota txosten osoa honako atal havez osatua dago:

- Sarrera. Hemen xede nagusia zehazten da, nori zuzenduta dagoen eta zer tresna eskaintzen den.
- Behar soziala hautematea eta lege-esparruaren eta marko teorikoaren azalpena.
- Generoa eta jatorri-aniztasuna uztartuta, esku-hartze arrakastatsuen bilduma egitea, dauden oztopo nagusiak eta horiek gainditzeko dauden esku-hartze eraginkorrak zerrendatuz. Bestalde, GFA JFKZak ekitatearen alorrean orain arte garatu dituen esku-hartze nagusiak eta programak identifikatzea. Eta, azkenik, ibilbide horrekin jarraitzeko, 2023. urtean eta 2023-2024 eta 2024-2025 ikasturteetan Gipuzkoako hiru udalerriz ezberdinetan gauzatutako hiru esku-hartze piloturen berri ematea.
- Oro har, egoera zaurgarrian dauden gizataldeetan jarduera fisikoa edota kirola sustatzeko printzipio nagusiak eta oinarritzko esku-hartzeak hautematea eta hedatzea; hori da gida orokorra deitu duguna.
- Eta, azkenik, BERARIAZKO GIDA deiturikoa, jatorri anitzeko emakumei zuzenduriko esku-hartzeetan aintzat hartu beharreko parte-hartze sustatzaileak jasotzen dituen.
- Bukaeran, eranskin bat atxikitzen da egindako esku-hartze pilotuen nondik norakoak deskribatuz, gida honetako puntu bakoitzari jarraikiz (Donostian Haurralde Fundazioarekin eta Ordizian Udalarekin), esku-hartzea diseinatzerakoan bi eredu praktikoen berri emateko.



1. AZTERKETA ETA EGITASMO HONEN JUSTIFIKAZIOA ETA BEHAR SOZIALA

1.1. SARRERA

Jarduera fisikoaren eta kirolaren eremuan emakumeen parte-hartzea urriagoa da. Hau da, berdintasunaren ikuspuntutik emakume eta gizonen arteko arrakala dagoen alorra da oraindik. Genero ikuspuntu honetaz gain, emakume izateari beste hainbat ezaugarri gehituz gero, hala nola klase soziala (langilea), etnia (arabiarra) eta erlijioa (islamiarra), kirola jarduera fisikorako sarbide eta parte-hartze nabarmen baxuagoarekin lotzen da.

Horregatik, programa hau berdintasunaren eta ekitatearen ikuspegiak uztartuta sortu da, jatorri anitzeko emakumeek dituzten oztopoak ezagutu ondoren, politika eta esku-hartze egokiak ezartzen joateko.

Arabiar eta musulmanen oztopoak eta aukerak zein diren argitu ondoren, esku-hartze erraztaile edota sustatzaileak zehaztu dira.

Hori horrela, diskriminazio-egoera anizkoitza jasan dezaketen jatorri anitzeko emakumeen oztopo indibidualez gain, oztopo sozioekonomiko eta soziokulturalak azaleratu dira. Horrek guztiak politiketarako gomendio eta esku-hartzeak nolakoak izan beharko luketen ezagutarazi du, jarduera fisikorako eta kirolerako eskubidea gauzatzeko eta gizarte-inklusiorentzat joateko.

1.2. 2/2023 EUSKADIKO KIROL ETA JARDUERA FISIKOAREN LEGEA

2023ko apirilaren 18an argitaratutako 2/2023 LEGEA, martxoaren 30ekoak, Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolarenak, bai hasieran bai ondorengo hainbat artikulutan gizarte-talde jakin batzuk artatzeko eta horiei zuzendutako programak prestatzeko beharra azpimarratzen du. Administrazio publikoek bere eskumenen barruan jarduera fisikoa sustatu eta horretarako neurriak hartuko dituztela adierazten du.

2. artikuluan zehazten diren printzipio gidarien artean honako hauek zehaztuko ditugu, egitasmo honekin lotura zuzena dutenak baitira:

“- Euskal botere publikoek, beren eskumenen esparruan, jarduera fisikoa eta kirola egiteko eskubidea benetan gauzatzeko politika bat ezarriko dute, honako printzipio gidari hauei jarraikiz:

(...)

b) Programa bereziak onartu eta gauzatzea jarduera fisikoa eta kirola gizarte-sektore guztietara zabaltzeko, bereziki, egoerarik ahulenean daudenentzako.

c) Oztopo guztiak kentzea pertsona guztiak jarduera fisikoan eta kirolean, benetan, berdintasun-baldintzetan edo ekitatez aritzeko.

d) Jarduera fisikoa eta kirola sustatzea edonolako desgaitasuna duten herritarrengan.

e) Baldintzak sustatzea emakumeak kirol-jardunaren maila guztietan eta diskriminaziorik gabe erabat integratzea errazteko.”

11. artikuluan zehazki ondorengoa aipatzen da:

11. artikulua.– Arreta bereziko taldeentzako neurriak.

1.– Administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, jarduera fisikoa sustatuko dute gizarteratzeko eta gizarte-kohesiorako faktore gisa, arreta berezia eskainiz desgaitasuna duten pertsonen, haurren, nerabeei, gazteei eta gizarte-talderik ahulenei edo gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan daudenei, bereziki, langabeei, etorkinei eta gizarte-eremu ahuletan bizi diren pertsonen. Zentzu horretan, kolektibo horiei zuzendutako programak prestatuko dira.

2.– Horretarako, kirol-arloko eskumenak eta gizarte-talde horiei lotutako eskumen sektorialak dituzten administrazio publikoek talde horien integrazioan eta haien ongizatearen hobekuntzan eraginkortasunez lagunduko duten jarduketak egiteko lankidetzaren mekanismoak ezarriko dituzte beren aurrekontu-baliabideen arabera.

1.3. MUGIMENT GIPUZKOA

Estrategia honen bidez, herritar aktiboez gain, herritar ez-aktiboak lehentasunez identifikatu eta artatu nahi dira. Horretarako, administrazio publikoek, elkarlanean, hainbat egitasmo eta zerbitzu garatu eta eskainiko dituzte, herritar horiek, norbanakoaren zailtasunez gain, testuinguruaren arabera oztipoak eta oztipo sozial gehiago izan ohi baitituzte.

Herritar ez-aktiboen arreta JARDUERA FISIKOARI BURUZKO EKINTZA PLAN GLOBALA 2018-2030: *Pertsona aktiboak mundu osasuntsu baterako Munduko Osasun Erakundearen (MOE) agirian ere aipatzen da. Hain zuzen ere, Pertsona Aktiboak Sortzea atalean, eta, bereziki, 3.5. puntuan: Inaktiboak direnentzako programak lehenestea:*

*“Programa eta zerbitzu ezberdinak garatzea eta gauzatzea bultzatzea komunitate-mailako gune ezberdinetan, herrialde zehatz batean **jarduera fisiko ezak mailarik handiena agertzen duten taldeetan** (esaterako, neskak, emakumeak, adinekoak, landa eremuko komunitateak eta indigenak eta gizarte-egoera ahulenean dauden edo bereizkeria pairatzen duten pertsonak) **jarduera fisikoa sustatzeko**. Guztion ekarpen positiboak aintzat hartu beharko dira”.*

Puntu honen lehenengo paragrafoari jarraikiz, koordinazio eta helburu horretatik eratorri dira tokiko talde sustatzaileak eta horien pean Kirol Orientazioko Zerbitzuak (KOZak), pertsona ez-aktiboak deribatu eta jarduera fisikoa bere bizi-ohituretan txertatzen laguntzeko orientazio-zerbitzuak dira, hain zuzen ere. Gipuzkoan jada 34 orientabide zerbitzu daude 24 udalerrietan, Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatu dituenak Eusko Jaurlaritzako Mugiment proiektuarekin eta Osasun Publikoarekin koordinazioan 2017az geroztik.

Toki-erakundeak, herritarren lehen lerroko administrazio zuzena izanik, euren bidez garatzen eta antolatzen diren egitasmoak dira.

Horretaz gain, desgaitasunaren alorrean, GFA JFKZak Gipuzkoako eredu ere idatzi du, non estrategia nagusiak Sartu eta Segi (Ongiseği eta Hobeseği) diren. Sarturen bidez, gizarte-inklusiorentz zuzendutako esku-hartzeak egiten dira, eta lehenesten den estrategia da, bertan desgaitasuna duten pertsonak desgaitasunik ez dutenekin batera aritzeko aukera ematen duten esku-hartzeak baitaude. Eta, bestetik, Segiren bidez, desgaitasuna duten pertsonen zuzendutako esku-hartze espezifikoak eta egokituak daude, inklusioan aritzea ezinezkoa suertatzen denerako.

1.4. EMAKUMEOK MUGIMENDUAN PROGRAMA

Berdintasunaren eremuan GFA JFKZak badu bere plana, eta, 2021 geroztik, baita emakume ez-aktiboek lehentasunez zuzendutako egitasmoa ere, Emakumeok Mugimenduan deritzona. Bere helburua da jarduera fisikoaren eta kirolaren eremuan, genero-ikuspegia txertatuta, genero-arrakala murriztea. EHUKo ikerketaren arabera, gipuzkoar emakumeen 3tik 2 aktiboa da, Munduko Osasun Erakundearen (OME) jarduera fisikoko jarraibideak aintzat hartuta, eta 3tik 1ek ez-aktibo izaten jarraitzen du.

Bestalde, horren barruan ikuspegi intersektional edota ekitate-ikuspegia uztartuta eta txertatuta sortzen da esku artean dugun egitasmo eta gida hau. Emakumeen egoera desberdinei erreparatzen dio, oro har, zailtasun eta oztipo gehiago dituen kolektiboa baita. Horiek, ikuspegi indibidualetik ez ezik, ikuspegi sozialetik eta testuingurutik ere erartzen dira.

1.5. GIPUZKOA EKITAKTIBOA

EHUKo Juan Aldazek, Gipuzkoako tokiko eragileen partaidetzarekin, ekitatearen ikuspuntutik aktibo izateko erartzen ziren zailtasunak mahaigaineratzeko azterketa egin zuen: Gipuzkoa Ekitaktiboa- Ikerketa Aktibatzailearen emaitzak deituriko analisia.

Bertan, ohiko ezaugarriez gain (adina eta generoa), beste ezaugarri batzuk aintzat hartzekoak direla zehazten da, hala nola osasun psikofisikoa, klase soziala eta etnia.

Lan horren jarraipena izango dugu; bertatik eratorriko den azterketa eta gida hau aurrerapauso bat gehiago da Gipuzkoa Ekitaktiboaren lan-ildotik. Hausnarketaz gain, esku-hartzeetarako lagungarri izango diren tresnak (txostena eta gida) eskainiko dira. Horrela, gizarte justuagoa eta ekitatiboagoa lortzeko xedearekin, lagungarri izango zaizkigun baliabideak izango ditugu.

1.6. ERASMUS+ EUROPAR KIROL EGITASMOA (2023)

GFA JFKZak, EHUrekin elkarlanean, jarduera fisikoaren eta kirolaren eremuko hainbat egitasmo eta azterketetan parte-hartzen du, GIKAFIT deituriko taldearen bitartez, hala nola eskola adineko haurren kirol-ohiturak aztertzen (*Kirol Ohitu* deituriko proiektua), kirol politiken eragina aztertzeko Kirol-Orientazio Zerbitzuak dituzten Gipuzkoako udalerrien eta ez dituztenen arteko alderaketa egiten, eta abar.

Gainera, 2023an *Erasmus+* kirol egitasmoa abian jartzeko aukera egon zen Europako lurralde hauetako kideekin: Alemania, Herbehereak, Norvegia, Suedia eta Polonia, eta, une honetan, berau garatzen ari da Europako funtsen laguntzarekin. *ALLSTAR* deituriko egitasmoaren bidez, toki-mailako kirolaren eremuko politika eraginkor edota arrakastatsuak hauteman eta aztertuko dira, non kirolean gutxiago parte hartzen duten pertsonen edota bazterkeria-egoeran dauden pertsona edo gizataldeen partaidetza sustatzen den.

1.7. GIPUZKOAKO II. ANIZTASUN FORU PLANA

GFAko Giza Eskubideak eta Kultura Demokratikoa Departamentuaren zuzendaritzak II. Aniztasun Foru Plana du oinarri gisa eskubide-berdintasuna xede izanik. Giza Eskubideen aldarrikapena ardatz izan da. Agiri honen abiapuntuan Gipuzkoan aniztasuna eta diskriminaziorik eza daude. Emakume eta neskak ez dira talde homogeneoa, baina, generoaz gain beste ezaugarri batzuk kontuan hartuta, diskriminazioa jasateko askotariko moduak sor eta paira daitezke. Ezaugarri horien artean daude jatorrizko herrialdea, estatus sozioekonomikoa, etnia eta erlijioa, besteak beste. Lan honen beharra eta balio erantsia interseksionalitate horretan oinarritzen da.

Bertan, *Pertsona migratzaile eta gutxiengo etnikoen eskubideak atalean jasotzen da Gipuzkoako gizarteak duen pertzepzioa: lurraldean egiaz dagoen atzeritar kopuruaren ia bikoitza dagoela uste da. Gainera, oro har, irizten da migratzaileek egokitu behar dutela gure usadio eta ohituretara, hau da, eredu asimilazionista gailentzen da, gizarte-inklusioko arrakastarik ez duen eredu. Eta, azkenik, zurrumurru eta estereotipo nagusiak dira "gure babes-sistemaz aprobetxatzen direla" eta "matxismoa areagotzen dutela". Ikuspegi behatokian ere adierazten da aurretik aipaturikoa: islamiar erlijioa duten pertsona atzeritarrekiko begirunea baxuagoa da. Horregatik ere izan da jomuga lan honen garapena.*

Gainera, 2021an berrikusitako Europako Kirol Gutunean jasotzen den bezala jarduera fisikoa eta kirola guztientzako eskubide bilakatu behar denez, nahitaez ekitateari eta aniztasunari erantzuteko barne egiturak berrantolatu beharko dira.

1.8. GENEROA ETA INTERSEKZIONALITATEA

- 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.


3.artikuluak:

"Hauek dira emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan EAEko botere publikoen jarduera gidatu eta bideratu behar duten printzipio orokorrak: tratu-berdintasuna; aukera-berdintasuna; emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitzea eta desagerraraztea; dibertsitatea eta desberdintasuna errespetatzea; genero-ikuspegia txertatzea; ekinga positiboa; generoaren arabera rola eta estereotipoak desagerraraztea; ikuspegi interseksionala txertatzea; sexu- edo genero-identitatearen garapen askea, sexu-orientazioa, gorputz-autonomia eta autodeterminazioa; ordezkariak orekatu; lankidetzak eta koordinazioa eta nazioartekotzea; emakumeen ahalgintza; gizonen inplikazioa; parte-hartzea; berrikuntza, gardentasuna eta kontu-ematea; hizkuntza-eskubideen babesa eta euskararen erabileraren sustapena".

3.art.1.c) *"...EAEko botere publikoek diskriminazio anizkoitzari aurre egingo diote, eta emakumeen edo emakume-taldean oinarritako eskubideak benetan gauzatzen direla bermatuko dute, emakume horiek bereizkeria-egoerak sor ditzaketen beste inguruabar batzuk ere tartean direnean, hala nola arraza, kolorea, jatorri etnikoa edo soziala, hizkuntza, erlijioa, kultura, politikari edo bestelako gaiei buruzko iritzia, gutxiengo nazional bateko kide izatea, ondarea, jaiotza, familia-eitea, desgaitasuna, adina, sexu-joera sexu-edo genero-identitatea, genero-adierazpena, landa-eremuko izatea, migratzailea, errefuxiatua, seropositiboa, guraso bakarra izatea edo beste edozein baldintza edo egoera pertsonal, sozial edo administratiboa".*

- Aldundiko 2/2015 FORU ARAUA, martxoaren 9koa, emakume eta gizonen arteko berdintasunerako.
Aintzat hartzekoa da oro har; zehazki, kirola eta jarduera fisikoaren atala 48. artikuluan zehaztuta dago. Genero-ikuspegia txertatu behar da foru-programa guztietan, bai eta aurrekontuetan ere. Kirolari dagokionez, oraindik hainbat eremutan arrakala dago, hau da, oro har, emakumeen parte-hartzea kirolean urriagoa da gizonekin alderatuta, eta hautemandako zailtasunetan denbora falta dago, erantzukizun laboralak eta zaintza-erantzukizunak izanik oztopo nagusienak. Horregatik, ezinbestekoak lirateke lana eta bizitza pertsonal eta familiarra uztartzeko egin behar diren esku-hartze eta politikak. Nesken parte-hartzea eskola-kirolean ere mutilena baino urriagoa da, arrakala mantentzen da egun, bai *Jolas Hezi* bai *Multi kirol* proiektuetan. Eta emakumeen partaidetza bereziki urriagoa da eremu federatuko kirol-praktiketan, nahiz eta hainbat kirol-modalitate feminizatutan alderantziz gertatzen den. Bestalde, eremu federatuan, gainera, emakumeen ordezkartza eskasa da kirol estamentu ezberdinetan (zuzendaritza, entrenatzaile, epaile...).

1. Irudia: Giza Eskubideen begirada, genero ikuspegia eta ikuspegi intersektionala:





2. ESKU-HARTZE EGOKI ETA ARRAKASTATSUEN BILDUMA

2.1. KALTEBERATASUN-EGOERAN DAUDEN GIZATALDEAK

(Iturri nagusia: SIIS Gizarte Informazio eta Ikerketa Zerbitzuko 2018ko azterlana –aurrerantzean SIIS–, “Gizarte eta ekonomia bazterketa egoeran dauden pertsonen artean kirola sustatzea”):

Kalteberatasun-egoeran dauden emakumeen oztopoak:

Kirola egiteko, gizatalde jakin batzuek hainbat oztopo izaten dituzte gizartean, egiturazkoak edo *estrukturalak* deiturikoak. Norbanakoaren faktoreez gain, faktore sozialek eta testuinguruko faktoreek ere eragina dute gizatalde horiek kirola edo jarduera fisikoa egiteko dituzten aukera edo erraztasunetan. SIIS zerbitzuko 2018ko ikerketak kalteberatasun-egoeran dauden eta kirola praktikatzeko egiturazko oztopo gehiago izan ditzaketen 10 gizatalde zehazten ditu. Horietatik bi gizatalde hauek zehazten ditu txostenak: bata, generoa aintzat hartuta, neskak edo emakumeak; eta, bestea, jatorri anitzeko pertsonak (zehazki, etorkin edota gutxiengo etnikoen atalean jasotzen da kontu hori).

Lan honetan bi gizatalde horiek dituzten oztopoak identifikatu nahi dira eta, ondoren, esku-hartze lagungarri edota sustatzaileak bildu. Zehazki, jatorri anitzeko emakumeen gizataldeari buruzko lanketa egin da.

SIIS zerbitzuko ikerketak (2018) sei oztopo nagusi identifikatzen ditu kalteberatasun-egoeran dauden neska eta emakumeek dituzten zailtasunen artean:

A) EMAKUMEAK

OZTOPOAK

a) Kirolaren identifikazioa eta gizontasuna

Gizarte-sistema patriarkalean, kirolaren eremua ez da hortik kanpo geratzen. Are gehiago, kirola eta gizontasuna oso estuki lotuta egon diren kontzeptuak izan dira, baita egun ere, nahiz eta emakumeen presentzia eta partaidetza igoz joan den. Honela azaltzen du atal hau SIIS zerbitzuko azterlanak (2018): *“Nagusiki, kirolak tradizionalki maskulinoztat jo izan diren balioak zabaltzen jarraitzen du. Komunikabideek eta kirol ikuskizunaren interesek temaz jarraitzen dute indar fisikoaren erakustaldia egiten, lehiakortasunari garrantzi gehiegi ematen eta lehia fisikoa harro erakusten. Gehiegizko lehiakortasun hau urrundu egiten da emakumeen kirol idiosinkrasiatik, horren lehiakorrak eta mediatikoak izaten ez diren adierazpideen alde egiten baitute, oro har”*.

b) Generoen arabera kirol-praktiken iraupena

Generoaren arabera, gizonezkoek erabiltzen dituzten espazioak eta egiten dituzten kirol-jarduerak, oro har, ezberdinak izaten dira. Kirol-praktika eta kirol-jarduera batzuk nagusitasunez gizonezkoek egin ohi dituzte; adibidez, futbola, errugbia, saskibaloia eta abar. Hala ere, esan beharra dago espazio horietan gero eta emakume gehiago parte hartzen hasi direla, baina eboluzioa pixkanaka-pixkanaka ari da izaten. Bestalde, badira emakumeek gehiago praktikatzeko dituzten kirol-jarduera edota jarduera fisikoak, hala nola dantza, gimnasia erritmikoa, zaldiketa eta abar. Baina historian zehar eta oraindik egun, kirol-mundua nagusiki gizonezkoekin lotuta egon da. Horrek ere kirol maskulinizatuak eta kirol feminizatuak egotea ekarri du, bai eta rol horiek hausteko beharra ere, progresiboki bada ere (2/2015 Foru Araua, 48. artikulua 2d) atala). Zoritxarrez, gaur egun bereizketa horrek irauten duela esan genezake bai eremu federatuan (ikus 2024ko lizentzia federatuetan dagoen arrakala: guztira 70.904, 52.260 gizonezkoenak –% 73,7– eta 18.864 emakumezkoenak –% 26,3–), bai eskola adineko eskola-umeen kasuan (ikus beheko paragrafoa).

Gipuzkoako eskola-adineko jarduera fisiko eta kirol-ohiturak aztertu dituen *Kirol Ohitu* deituriko proiektuari so eginez gero, 2023-24 ikasturteko datuen arabera, egunero ordubeteko jarduera fisiko edota kirolaren praktikan genero-arrakala dagoela baieztatzen da (mutilen % 76k baietz dio, eta nesken kasuan, berriz, % 58k). Gauza bera gertatzen da Eskola Kiroleko Multikirol programan parte hartzen duten galdetzean: arrakala areagotu egiten da (mutilen % 82k baietz dio eta nesken kasuan % 62k).

Aurreko paragrafoko estereotipoen gaiari jarraikiz, gaur egun egiten duten jarduera fisiko edota kirol motari buruz galdetzean, mutilen parte-hartzea oso altua da kirol maskulinizatueta, eta neskena, hain altua ez bada ere, kirol feminizatueta altua dela esan daiteke (mutilen % 73 futbolearen lehenik, bigarrenik saskibaloian, % 24, eta hirugarrenik esku-pilotan, % 15; eta neskak, berriz, lehenik dantzan ari dira, % 47, bigarrenik futbolearen, % 31, eta hirugarrenik saskibaloian, % 22). Batetik, oraindik estereotipoak mantentzen dira bi generoetan, baina nesken presentzia handituz doa kirol maskulinizatueta; aldiz, mutilen presentzia kirol feminizatueta gutxiago ikusten da. Noranzkoa bi norabideetan izan dadin lan egin behar dela nabarmena da.

c) Parte-hartze tasaren jaitsiera nerabezaroan

SIIS zerbitzuko azterlanak (2018) hirugarren oztopo gisa parte-hartze tasaren jaitsiera nerabezaroan aipatzen du eta honako hau azpimarratzen du: *“Gaur egun ere, nerabezaroa rol femeninoak indartzen diren garai bat da neskontzat, eta kirol jardueratik bereizitako femeninoasunarekiko presioa gehitu egiten da. Oso estereotipo negatiboak sortzen dituzten identifikazio hauek zabaltzen laguntzen dute komunikabideek, zeinetan kirol balioak funtsean ezaugarri maskulinoekin lotuta dauden. Eskolan gutxi gorabehera gorde egiten diren kirol berdintasunaren pautak eten egiten dira nerabezaroarean, eta galdu egiten dira nerabezaroan”*.

Lehen hezkuntzatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara igarotzeko garaian neskek kirol-praktikarekin gutxiago jarraitzen dute (ikus aurreko ataleko lizentzia kopurua); izan ere, eskolatik klubetara joateko jauzian batzuek kirola egiteari uzten diote, klubak mundua maskulinoagoa izan ohi delako. Hainbatek dantza eta horrelako jarduera fisikoarekin jarrai dezakete, baina beste hainbatek, adinez nagusi izan arteko tarte horretan, beste mota batetako kirol eskaintzaren falta dela eta, kirola egiteari uzten diote. Euskadiko Udak Kirol Behatokiaren arabera (2020), udaletako kirol-eskaintzatik bideratutako ikastaroen gehiengoa 18-64 urte bitartekoei zuzentzen zaie, ondoren 0-17 urte bitartekoei, eta, azkenik, 65 urtetik gorakoei. Horrek arestian aipaturikoa zailtzen die nerabe eta gaztetxoei.

d) Estetika femeninoarekiko kezka gisa batez ere ulertzen den kirolaren nagusitasuna

SIIS zerbitzuko azterlanak (2018) laugarren oztopo gisa, aurreko oztopoaren ildoari jarraituz, honako hau gaineratzen du: *“Kirola egiten arestian hasi diren emakumeen kasuan, garrantzi handiegia eman zaio silueta zaintzeko bakarrik balio omen duen kirolari, kirola balitz bezala sasoian egon eta silueta zaintzeko zerbait. Instrumentalizazio hau dela eta, emakumeen artean entrenamenduen alderdirik gogaikarrienak eta sakrifikatuenak nagusitu dira lehiakortasunaren berezko emozioen eta alderdi pozgarrien gainetik, zeinek toki txikiagoa hartzen duten”*.

Horrekin ikus daiteke, gizartearen presioa dela eta, emakumezkoek eta gizonezkoek kirola egitearen arrazoiak edo motibazioak helburu ezberdinei lotu izan zaizkiela. Izan ere, kulturalki, neskei eta emakumei kirola egiteko eskatu zaie beren itxura zaintzeko, estetika ederra izateko, bai eta eskakizun-maila altuko jarduera fisikoak egiteko ere.

e) Denbora erabiltzeko aldeak

Jakina da, baita ere, emakumezkoen eta gizonezkoen jarduera fisikoari buruz hitz egiten badugu, maila-arrakala dagoela, emakumezkoek gizonezkoek baino jarduera fisiko maila baxuagoa egiten baitute (2023ko Gipuzkoako Soziometroa: gizonezkoen % 80 inguruk egiten du jarduera fisikoa egunero edota astean hainbat alditan; aldiz, emakumezkoen % 72 inguruk). Jarduera fisiko gutxiago egitearen arrazoi nagusia denbora falta da.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuak, EHUrak laguntzarekin, Gipuzkoako emakumei zuzendutako kirol-ohituen gaineko ikerketa egin zuen 2021ean. Adinari erreparatuz, 18-64 urte bitarteko 21.000 emakumeetatik 3987 emakumek parte hartu zuten, eta 3tik 2 (% 68) aktiboa zela eta 1 ez zela aktiboa ondorioztatu zen (ikus infografia). Aktiboa ez izateko oztopo nagusia denbora falta zen, berriz ere.

Denboraren erabileran, oro har, emakumeek soldatapeko lana, etxeko lanak eta zainketak bateratuta dituzten eguneroko zereginak direla eta, aisialdirako denbora gutxiago izan ohi dute, eta, gainera, berau kirola egiteko erabiltzea zaila izan daiteke. Gizonezkoek, aldiz, aurretik aipaturiko zeregin guztiak uztartuta, denbora libre gehiago izan ohi dute aisialdirako eta horrek gehiago lagundu dezake kirola egiteko denbora hartzeko. Generoaren arabera, denbora izatearen pertzepzioa eta errealitatea ezberdinak dira.

SIIS dokumentazio-zentroko azterlanean (2018), goian adierazitako gaia honela azpimarratzen da:

“Emakumeen astialdiak batez ere familiako premiak ditu jomuga, erabateko prestasun moduko zerbait da, zeinak oztopatu egiten baitu aurreikuspen jakina eskatzen duten jardueretara astialdi hori bideratzea, non erabil zitekeen jarduera fisikorako planifikaturiko denbora jakin bat”.

SIIS dokumentazio-zentroko azterlanak (2018) honako ñabardura hau ere gaineratzen du, generoaz gain, egoera laboralarekin eta diru-sarreraren mailarekin lotura duena:

“Soldatapeko lanposturik ez baduzu – etxeakoandreen kasuan gertatzen den bezala –, norberaren astialdiarekiko eskubidea badirudi etenda-edo gelditzen dela eta, beraz, astialdi hori beste jarduera batzuetan (kirolean, esaterako) erabiltzeko aukera ukatu egiten dela”.

Hala, emakume migranteekin edota jatorri anitzeko emakumeekin lotura zuzena izan dezake. Izan ere, horiek etxeakoandreak dira edota lan-egoera ezegonkorak dituzte, eta horrek jarduera fisikoa egiteko oztopoa areagotu dezake.

f) Egoera sozioekonomikoa

Azkenik, SIIS zerbitzuko azterlanak (2018) honako hau zehazten du seigarren oztopo nagusi gisa:

*“Aurreko joera guztiak larriagotu egiten dira emakume talde jakin batzuetan, noiz, haien **generoaz gain, beste zenbait desberdintasun ere gehitzen baitira, zeinek kaltebera bilakatzen dituzten eta bazterketa egoeretan erortzeko arriskua handiagotzen duten: errenta baxuekiko emakumeak, zama familiarrak dituzten familia gurasobakar amadunak edota emakume etorkinak. Haietan guztietan bildu egiten dira diskriminazio ezaugarri berriak, zeinek **erakundeen aldetik eskatzen baitute ahaleginak handitzea eta esku hartzerako bide berriak asmatzea, batez ere gizarte egoera ahuleko emakumeei zuzenduak**”.***

Alde horretatik, Gipuzkoako pobreziari eta gizarte-bazterkeria arriskuari buruzko 4. inkestari (SIIS, 2022) erreparatzen badiogu, pertsona ez-pobreen % 30,5ek adierazi du egunero egiten duela jarduera fisikoa, eta pobreen % 26k. Aldeak nabarmenagoak dira errenta-mailaren kasuan: diru-sarreraren lehen kintilekoen % 27,8k adierazten du egunero egiten duela jarduera fisikoa; aldiz, bosgarren kintilekoen % 35,7k soilik egiten du kirola egunero. Aldeak estatistikoki esanguratsuak ez diren arren, gizarte-integrazioaren mailan ere alde handiak daude: bazterketa-egoeran dauden pertsonen % 23,9k egunero egiten dute jarduera fisikoa eta integrazio-egoeran daudenen %30,9k. Azkenik, alde nagusia bertakoena (% 31,7) eta jatorri atzerritarra duten pertsonena (% 14) alderatuta ikus daiteke (azken datu hori pertsona etorkinen eta gutxiengo etnikoen atalean azpimarratuko da).

SUSTATZAILEAK

Kalteberatasun egoeran dauden emakumeen artean kirol jarduera sustatzea:

Gaur egun, **genero-aldagaia** aintzat hartzen hasi da gizarte-politiketan, batik bat, aukera-berdintasunak izate aldera gizarteko esparru ezberdinetan genero-arrakala gainditzeko legeria sortu denetik (kirolaren eta jarduera fisikoaren eremua barne), eta azken jomuga izanez berdintasun eta parekidetasunaren aldeko gizarte-eraldaketan eragitea.

Politiketan, berriz, oraindik **beste hainbat aldagai** ez dira bereziki aintzat hartzen eta honela adierazten du SIIS zerbitzuko azterlanak (2018):

*“...Aldiz, euren sexu kondiziotik eratorriak ez diren kirola praktikatzeko oztopoak ezabatzeraz bereziki zuzendutako **esku hartzeak ez dira horren ugariak; aitzitik, gizarte klasetik, etnietatik edo familia-egoeratik eratorriak** izan daitezkeenak. Emakume hauek, beraz, haien **gizarte posizioa baldintzatzen duten bi faktore** multzo pilatuko lituzkete: **generoa** eta beraien kontrakoak dituzten **baldintza sozioekonomikoak**.”*

Aurreko atalean identifikatutako oztopoak aintzat hartuta, sei esku-hartze erraztaile edota sustatzaile planteatzen ditu SIIS zerbitzuko azterlanak (2018). Lehena jardueren kostua jaistea edo oztopo gehiago duten gizataldeei zuzendutako politiken finantzaketa igotzea litzateke:

a) Jardueren kostua azpimarratu

Batetik, jardueren kostua jaistearen estrategia eraginkorra izan daiteke, eta horrela azaltzen du SIIS zerbitzuko azterlanak (2018):

“Gizatalde honek kirola praktikatzeko duen oztopoetako bat egoera ekonomikoa izanik, jardueren prezioa azpimarratzeak oztopo hau arintzen laguntzen du”.

Eta, bestetik, jardueren kostua azpimarratzearen estrategia emakumeei soilik zuzendutako jarduera fisikoak finantzatzea izan daiteke. Honela azaltzen du SIIS zerbitzuko azterlanak (2018) estrategia eraginkor eta positibo hori:

“Finantzatzen diren jarduerak emakumeentzat antolatuta daude eskusiboki, horrek haien parte hartzea errazten du, kidekoen artean sentitzen baitira, hain lehiakorra ez den eta haientzat seguruagoa den ingurune batean”.

b) Jarduera fisikoa familia-erantzukizunekin bateratu

Jakina da, baita ere, egungo gizartean bizitza pertsonala eta familia-bizitza lan-bizitzarekin uztartzeko zailtasunak ditugula, bai gizonezkoek bai emakumezkoek, eta horren arrazoi nagusia denbora-falta dela azpimarratzen dute. Gainera, horren eragina handiagoa izan ohi da emakumeetan eta, bereziki, adingabeen amak diren emakumeetan. Etnia eta kultura faktoreek zeresana dutela nabarmentzen da, baita ere, ondoren aipatuko dugun txosten-proposamenean. Beraz, etnia eta kultura ezberdinetako emakumeek zailagoa dute jarduera fisikoa familia-erantzukizunekin bateratzea.

Hori dela medio, uztartze hori errazten duten strategiak beharrezkoak izaten dira bizitzako garai horretan. Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Departamentuak 25-44 urteko adin tartean uztartzea hobetzeko proposamena egiten duen txostenean hainbat datu eta esku-hartze arrakastatsu biltzen ditu. Eremu ezberdinetako esku-hartze eraginkorrak proposatzen dira (administrazio-eremuan, hirigintzan, osasunean, marketinean, lan-eremuan...). Administrazio-eremuan ondorengo bi esku-hartze garrantzitsu zehazten dira, adibidez: jarduera fisikoa haurrekin batera egitea edo haurren ekintzekin koordinatzea (kirol jarduerekin edo eskola ordutegiarekin). Batzuetan, haurtzaindegiek ere funtzio hori bete izaten dute.

SIIS zerbitzuko azterlanak (2018), arestian aipaturikoaren harira, honako hausnarketa hau egiten du eta hainbat esku-hartze erraztaile identifikatzen ditu:

“Seme-alabak eta etxea zaintzearen rol kultural eta tradizionalarekin lotuta dauden oztopoek pisu handiagoa dute emakumeentzat gizonentzat baino”. (...)

“- Jarduerak eskola-ordutegiaren barruan planifikatzea, kirol saioek iraun artean emakumeek seme-alabek arduratu beharrik izan ez dezaten, haurrak eskolan egongo direnez gero.

- Emakumei zuzendutako kirol saioak adin txikikoei esparru berean zuzentzekoak diren saioekin bat etorraztea.

- Emakumeen kirol saioek iraun artean, “haurtzaindegi zerbitzu” bat antolatzea”.

c) Egitura eta kudeaketa parte-hartzaile bat izan

Bigarren esku-hartze lagungarri gisa, honako hau zehazten du SIIS zerbitzuko azterlanak (2018):

“Ondo dabilzan esku hartzeak batez ere ondo ibiltzen dira proiektuaren arduradunek parte hartzen dutenekin lotura estuak dituztenean, eta proiektuaren antolaketan, garapenean eta ebaluazioan haiek ere parte hartzen dutenean.”

d) Irisgarritasun on bat ziurtatu

Aurreko atalean, egitasmoa aurrera eramateko partaideekin batera egitearen garrantzia azpimarratu da. Orain, berriz, partaideentzat jarduera fisikoa egitea erraza, hurbila, irisgarria eta segurua izatearen garrantzia azpimarratzen da.

Hori honela zehazten du SIIS zerbitzuko azterlanak (2018): *“Parte hartzea errazteko asmoz, publiko hartzailea biltzen den lekuetan programak gauzatzea garrantzitsua da. Biziguneetatik hurbil dauden instalazioetan programak gauzatzea gomendagarria da: ikerketek frogatzen dutenez, kirol instalazioak gehiago erabiltzen dira, haietara oinez iristea posible denean. Horrez gain gomendagarria ere bada kirol instalazioak irisgarriak eta seguruak izatea –argiztapen ona, leku bakartiak saihestu, e.a.–”.*

Jatorri anitzeko emakumeen kasuan, garrantzia izaten du, baita ere, jarduera fisikoa egingo duten instalazioa ezaguna izatea. Honako hau gaineratzen du SIIS zerbitzuko ikerketak (2018): “Emakume etorkinei zuzendutako programen kasuan, jarduerak ezagunak zaizkien instalazioetan –kultur edo erlijio zentroetan– egiteak laguntzen du.” (...) “Esperientzia interesgarrien artean **Beloaren atzean** nabarmentzen da gehien, Valentziako Unibertsitat-eko Soziologia eta Gizarte Antropologia Departamentuak garatua”.

Gai hau atal honetan azalduko da zehatzago: “Pertsona etorkinen eta gutxiengo etnikoen baldintzatzaile positiboak, generoa uztartuta”.

e) Kultura-faktoreak kontuan izan

Aurreko atalez gain, **kultura-faktoreak aintzat** hartzea ezinbestekoa da jatorri anitzeko emakumeen kasuan. Jarduera fisikoko programak diseinatu eta eskaintzeko, gizarte batean gorputzaren mugimenduaren inguruan dauden kultura-kodeak ezagutzea garrantzitsua da, bai bere kontzepzioan eta bai esposizioan. Hortaz, erlijioa kulturaren parte izanik, erlijio-kodeak kontuan hartzea garrantzitsua da.

Honela aipatzen du hori SIIS zerbitzuko txostenak (2018), bosgarren esku-hartze sustatzaile gisa:

“Gutxiengo etnikoetako emakumeei eta neska gazteei zuzendutako kirol programek kontuan izan behar dute, ezen, komunitate horietan, **gizonezkoekiko harremanak zein gorputzaren esposizioa mugatzen duten erlijio edo kultur kodeak egon daitezkeela. Emakume musulmanei zuzendutako proiektuen kasuan, azken urteetan, ondoko neurriak hasiak dira hartzen:**

- Emakume langileak kontratatzea: entrenatzaileak, begiraleak, e.a.
 - Emakumeak kirol jantziekin edo bainujantziarekin jantzita ezin gizonek –mantentze lanetako langileek, kirol instalazioetako erabiltzaileek– ikus ditzan saihestea.
 - Ordutegi eta ekipamendu jakin batzuetan, gizonei sarrera murriztea: Alemanian, Frantzia edo Erresuma Batuan gizonei sarrera murrizten hasiak dira –batez ere, udal igerilekuetan–, emakumeak aipatu ekipamenduetara joan daitezen errazteko.
- Baina, ez da ika-mikarik gabea izan. Ondorioz, azken esku-hartze hau indarra galtzen joan da”.

Horregatik, gida honetan, **aldagai soziokulturalak** aintzat hartuko dira; esaterako, monitoreak emakume izatea, taldea emakumez soilik osatuta egotea, eta kulturaren arabera janzkera errespetatzea jasoko dira esku-hartze lagungarri gisa, beste askoren artean.

Momentuz, kiroldegia edo igerilekua ordu zehatz batean gizonezkoek murriztea alboratu da, ika-mika handiak sortu izan dituelako arestian aipaturiko Europako bi herrialdeetan eta Erresuma Batuan.

Administrazio publikoak, programa horiek diseinatzerakoan eta ezartzerakoan, kultura-faktore horiek duten izugarritzko garrantziaz jabetu behar dira, bai eta zilegitzat hartu ere. Horretarako, kontuan hartu behar dute gure gizarteak ere bere kultura-kodeak dituela, eta bata eta bestearen aldea maila berean ezarri, inola ere ez gurea normalizat joz eta bestearena berezizat.

SIIS zerbitzuko azterlanak (2018) honela zehazten du aurreko paragrafoan aipaturikoa:

“Estrategiak diseinatu edo inplementatu behar dituzten agintari publikoek komunitate etnikoen premiak onartzea eta ‘berezizat’ ez baizik eta legitimotzat jotzea gomendatzen du”.

f) Dagoen eskaintzari buruz informatu

SIISeko txostenak (2018) seigarren puntu lagungarri gisa **informazioa** aipatzen du; hau da, informazioa xede den gizataldeari iritsaraztea eta hori modu argi, zuzen eta egokian egitea. Era berean, haien kultura-kodeen inguruko informazioa jasotzea ere bai (zer arropa jantzi ahaliko duten, esaterako). Honela adierazten du hori:

“Jatorriz etorkinak diren emakumeak, tokiko kirol instalazioetan parte hartzeko dauden erraztasunei eta aukerei buruz nahiko gaizki informatuta daudela argi eta garbi erakusten du literaturaren berrikuspenak. Egiten diren kanpainak beti ez dira hartzailengana iristen, dela hizkuntza-arrazoiengatik dela informazio bide okerrak erabiltzeagatik. Gainera, emakume musulmanen kasuan, jarduerari buruzko informazioak kirol jarduera non egingo den eta zein arropa jantzi ahal izango duten argitzeari ere komenigarri deritza”.

B) JATORRI ANITZEKO PERTSONAK

(Iturri nagusia: SIISeko ikerketa, Gizarte eta ekonomia bazterketa egoeran dauden pertsonen kirola sustatzea 2018):

SARRERA

Etorkinen artean kirola zabaltzea

Jatorri anitzeko pertsonen jarduera fisikoaren mailak baxuagoak dira azterketa zientifikoaren arabera. SIISeko azterlanak (2018) honako hau aipatzen du jatorri anitzeko etorkin eta gutxiengo etnikoetako pertsonen buruz, kirolari dagokionez:

“Literatura zientifikoak iradokitzen duenez, jarduera fisiko mailak nabarmen baxuagoak dira

desabantaila sozioekonomikoan dauden gizataldeen artean, eta etorkinak eta gutxiengo etnikoetako pertsonak ez dira salbuespen”.

Bestalde, gure lurraldeari so eginez, Gipuzkoako pobrezia eta gizarte-bazterkeria arriskuari buruzko ikerketaren arabera (SIIS, 2022), bertako pertsonen eta jatorri atzerritarreko pertsonen datuak alderatuz gero, egunero jarduera fisikoa egiten dutenen portzentajearen aldea izugarria da; izan ere, bertakoen artean % 31,7 diren bitartean, jatorri atzerritarra duten pertsonen artean % 14 dira soilik (ikus 57.-58.or.).

Jarduera fisikoaren maila baxuagoaren arrazoiak aztertzerakoan, ohiko arrazoiez gain (denbora-falta, familia eta lanarekin bateratzeko zailtasunak, eta abar), badira arreta jarri eta aintzat hartu beharreko beste batzuk. Hauxe dio SIISeko azterlanak (2018) horri buruz:

“Etorkinen gizataldeak gizarte bazterketa arriskuan dauden gainerako pertsonekin kirola

*praktikatzeko zailtasun eta motibazioetako asko partekatzen baditu ere, gizatalde honi buruz egin diren ikerketek badirudi aditza ematen dutela **espezifikotasun** batzuk badituela, zeinagatik merezi baitu berez dagozkion premiak eta eskariak (jarduera fisiko baxuago horren arrazoi ere badirenak) aztertzeko etenaldi bat egitea”.*

OZTOPOAK

Etorkinen artean kirola zabaltzeko oztopoak: etorkinen artean kirola sustatzeko esku-hartze eraginkorren informazioa emateko, lehenik eta behin, zailtasunak, baldintzatzen duten faktoreak edota dituzten oztopoak hautematea ezinbestekoa da. Nekez lortuko da esku-hartze edota programa baten arrakasta, gizatalde honen premiak ez badira aztertzen. Horregatik, SIISeko txostenak (2018) hainbat oztopo identifikatzen ditu, eta horiek gainditzeko, eskariak biltzen ditu. Oro har, lau ataletan jaso daitezkeen oztopo eta eskariak dira: **ekonomikoak, sozialak, kulturalak eta politikaren arlokoak**.

JATORRI ANITZEKO EMAKUMEEN ONGIZATE ETA GIZARTE-INKLUSIOA JARDUERA FISIKO EDOTA KIROLAREN BIDEZ

Hona hemen taula:

Oztopoak		Eskariak
Ekonomikoak	- Instalazioen kostua - Kluben edo entitateen kuotak - Fitxa federatiboen kostua - Ekipamendu irekirik eta doakorik eza.	- Kirol-ekipamenduen doakotasuna edo/eta prezio eskuragarriagoak - Klub edo entitateen kuotak jaisteko laguntzak - Fitxa federatiboen kostua jaitea - Ekipamendu irekiak eta doakoak
Sozialak	- Kirol-instalazioetarainoko distantzia - Kirol-erabilerarako espazioen eskaintza urria - Informaziorik eza - Kirol-jarduera anitzetara egokituriko espazio publikorik eza - Aisialdi sedentariarako alternatiba gehiago - Genero-estereotipoak - Jatorri etnikoa - Kondizio soziala - Hezitzaile/entrenatzaileek eza	- Kirol-erabilerarako espazioen eskaintza zabaltzea - Informazioa hobetzea - Espazio publikoak kirol-jarduera anitzetara egokitzea - Aisialdirako heziketa - Generoaren, jatorri etnikoaren, adinaren eta abarren arabera eskaintza dibertsifikatzea - Hezitzaile/entrenatzaileen prestakuntza
Kulturalak	- Autobazterketa - Osasuna, gorputzaren kultura eta aisialdiko erabilera hautemateko kultura-desberdintasunak - Jarduera fisikoarekin loturik dauden balioak modu desberdinean hautematea - Kirol-jardueren eskaintza urria (futbola eta saskibaloia gehienbat) - Elikadura-kultura	- Kirol-jarduera fisikoa egitetik eta osasunaren eta bizi-kalitatearen mailak hobetetik datozen alderdi positiboak azpimarratzen dituzten heziketa-kanpainak - Kultura anitzeko praktikak zabaltzea
Politikak	- Kirol federatuaren sisteman sartzeko zailtasunak - Instalazio publikoetan sartzeko zailtasunak - Legeria murriztailea	- Sistema federatiboan sartzeko bidea erraztea - Instalazio publikoetan sartzeko sistema hobetzea - Kirol legeria aldatzea

Beraz, laburbilduz, jarduera fisikoaren edo kirolaren bidez etorkinen partaidetza sustatzeko, batetik, **aldagai ekonomikoa** aintzat hartu beharko litzateke, doakotasuna edo kuoten jaitsiera ezarriz, edota espazio irekien aukerak areagotuz. Bestetik, **aldagai soziokulturalak** kontuan hartu beharko lirateke: espazioetarako sarbidea hobetzea (hurbila, zabalagoa eta jarduera fisiko anitzetara egokituagoak), informazioa hobetzea eta dagokion taldera iristea, heziketa-kanpainak egitea, genero, jatorri etniko eta kondizio sozialaren arabera eskaintza dibertsifikatzea, eta abar. Eta, azkenik, **politikak eraldatzea** ere beharrezkoa litzateke, zehazki, legeria edota araudia argituz eta malgutuz, sistema federaturako sarbidea erraztuz eta instalazio publikoetarako sarbidea hobetuz.

SCORE gidaliburuak (2024) lau oztopo mota sailkatzen ditu aurrekoekin lotura dutenak (ikus 26. or.):

1. Oztopo **administratiboak**.
2. Oztopo **sozioekonomikoak**.
3. Gutxiengo etnikoekiko **aurreritzi eta jarrera diskriminatzaileak**.
4. Ezberdintasunak **kirolean parte-hartzearen lehentasunean** eta **gustuko dituzten kirol-motetan**.

SUSTATZAILEAK JATORRI ANIZTASUNA ETA GENEROA UZTARTZEN

Jatorri anitzeko gizataldean ere generoa aintzat hartu beharreko aldagaia dugu, gure gizartean bezalaxe. Hori horrela, aurreko atalean aipatutako baldintzatzaile eta sustatzaileez gain, generoaren arabera ere beste hainbat alderdi barneratu beharko lirateke. SIISeko azterketak (2018) honako berariazko gomendio hauek identifikatzen ditu:

Generoaren ikuspegitik eman beharreko gomendio bereziak:

*“Jarduera fisikoa etorkinen artean sustatzeko eta gai hau jorratzeko orduan, **genero ikuspegia** garrantzi ezin handiagoko beste elementuetako bat da. Komunitate jakin batzuetan, **gizonezkoekiko harremanak zein gorputzaren esposizioa mugatzen duten erlijio edo kultur kodeak egon daitezke emakumeentzat**” (SIIS, 2018).*

Baldintzatzaile horiek medio, esku-hartze batzuetan bi alderdi aintzat hartzea komenigarria litzateke:

- Emakumezkoen jarduera gizonezkoetatik at egitea, hau da, soilik emakumez osaturiko taldea izatea (hezitzailea barne).
- Kultura- edo erlijio-baldintzatzaileak medio, gorputza estali nahi izanez gero, dagokion janzkera errespetatzea (adibidez, hijaba, burkinia...).

Jatorri anitzeko emakumeen kasuan, jarduera fisikoa egingo den lekuaren garrantzia ere esanguratsua da. Leku ezaguna eta segurua izateak garrantzia duela nabarmendu behar da. Horri buruz, hauxe adierazten du SIISeko azterlanak (2018): *“Emakume etorkinei zuzendutako programak gauzatzeko orduan, jarduerak ezagunak zaizkien instalazioetan –kultur edo erlijio zentroetan– egitea gomendatzen du hemen aztertutako literaturak. Ezagunak zaizkien leku hauek seguruak begitantzen zaizkie bai erabiltzaileei bai beraiei inguruneke pertsoneri”.*

SIISeko azterlanak (2018) hau ere gaineratzen du emakume musulmanei dagokienez:

“Emakume musulmanei zuzendutako proiektuen kasuan, azken urteetan, premia konplexuak dituen gizatalde honi bereziki bideratu zaizkion ondoko neurriak hasiak dira hartzen:

- Emakume erabiltzaileekin zuzeneko harremanetan jartzen diren profesionalen kasuan emakumezko langileak bakarrik kontratatzea: animatzaileak, entrenatzaileak, begiraleak, e.a.”.

Eta estatu-mailako esperientzia arrakastatsu honen aipamena egiten du: *“Esperientzia interesgarrien artetik **Beloaren atzean** nabarmentzen da gehienbat, Valentziako Unibertsitat-eko Soziologia eta Gizarte Antropologia Departamentuak garatua. Proiektua 2012an jarri zen martxan, An-Nur Emakume Musulmanen Elkartearen eta Valentziako Kultur Gune Islamikoaren laguntzaz, eta Magrebeko emakume etorkinen gizarteratzea kirolaren bidez sustatzea du helburu”.*



2.2. “EMAKUME MUSULMANEN GIZARTE-INKLUSIOA JARDUERA FISIKOAREN BIDEZ” ONDORIOAK (Emakume musulmanen gizarte-inklusioa jarduera fisikoaren bidez, Master Bukaerako Lana, O. Zunzunegi, 2020)

- Nazioarteko immigrazioa gorantz doa eta, nahiz eta hasiera batean gizonezkoena izan, gaur egun emakumezkoena ere gorantz doa.
- Islamiar immigrazioa ere gora doa Mendebaldeko gizartean eta, Europan, islamiar erlijioa duten herrialdeetako immigrazioa nagusitu da: Alemanian Turkiakoa eta Espainian Marokokoa. Espainiar estatuan etorkinen jatorrizko herrialde nagusienak Maroko, Aljeria eta Tunisia dira.
- Politiketan immigrazioak leku marjinala izan du, are gehiago emakumezkoen immigrazioak. Immigrazioak aniztasun-kategoria ezberdinak ekarri ditu: hizkuntza, erlijioa, kultura eta jatorria. Hortaz, ezaugarri horiek kontuan hartzen dituzten esku-hartzeetan oinarritutako politikak ezinbestekoak dira.
- Egile ezberdinen arabera, honako hiru ezaugarri haven loturatik bazterkeria edota bazterkeria-arriskua sor daitezke: generoa, etnia eta klase soziala. Emakumeek, etorkinek eta langileek diskriminazio-egoerak jasan ditzakete hiru faktore horien interakzioan.
- Zehazki, emakume magrebtar etorkinek hainbat zailtasun izan ohi dituzte harrera-herrialdean: hizkuntza ez ezagutzea edota menderatzea, lana aurkitzeko ezagutza falta, lan-prekarietatea eta soldata baxuak.
- Estereotipoei dagokienez, immigrazioa, oro har, pobreziaarekin eta marjinazioarekin lotu ohi da. Komunikabideek eta hainbat ikertzailek ikuspegi etnozentrismoa elikatu izan dute, eta horrek arazoa ekarri du kultura-aniztasunaren onarpenean. Etorkinek eta, batik bat, emakumeek kultura-aniztasuna bistaratzean paper nagusia jokatzen dute.
- Estereotipoekin jarraituz, islamiar erlijioa terrorismo eta fanatismoarekin lotzeko joera dago. Terrorismo jihadistaren beldurra islamofobiaren gorakada ekarri du. Izan ere, bai erlijioa ez ezagutzeak, bai komunikabideek horretan lagundu dute; hau da, islama fundamentalismoarekin lotzen.
- Emakume musulmanaren estereotipo faltsuetako bat da berau otzana dela, eta bere erlijio edota sistema patriarkalak esplotatua egoten dela. Zapia jartzeko presioak izan ohi dituztela egia izan daitekeen arren, ezin da egoera hori orokortu. Emakume musulmanek zapia jartzeko dituzten arrazoiak askotarikoak diren bezala, eta ez beti presio sozialarengatik, emakume musulmanak ere berez askotarikoak dira.
- Mendebaldeko gizartean ere emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko bidea egiteke dago; beraz, erronka hori ez dagokie soilik emakume musulmanei, baita Mendebaldeko emakumei ere. Hau da, Mendebaldean ere, emakume magrebtarrek bezala, emakume askok beren eskubideak, aukerak eta bizi-baldintzak gizonen eskubide eta baldintzekin berdintzeko borrokan jarraitzen dute.
- EAEn, kuantitatiboki, atzeritar jatorriko biztanle kopurua % 10 ingurukoa da, baita Gipuzkoako lurralde historikoan ere. Generoari so eginez, erdia baino pixka bat gehiago emakumezkoa da. Magrebekoen artean, aldiz, oraindik gizonezkoen kopurua altuagoa da (% 61,1). Gipuzkoako immigrazio nagusia Amerikatik dator; ondoren, Europar Batasunetik, eta, hirugarrenik, Afrikatik, zehazki, Magreb eta beste zona batzuetatik. Baina jatorrizko herrialdea kontuan hartuta, Estatuan bezala, gehiengoa Marokotik dator. Beraz, islamiar erlijioaren garrantzia, berriz ere, agerian gelditzen da.
- EAEko herritarrek, azterketa kualitatiboari so eginez, ez dute immigrazioa arazo nagusitzat hartzen. Hori baino lehenago arazo ekonomikoak, lana eta pentsio-sistema daude. Aipatzekoa da etorkin kopuruaren datu errealearen eta pertzepzioaren arteko desfasea: % 10 diren arren, euskal gizarteak uste du bikoitza dela, % 21, hain zuzen ere. Bestalde, kultura-aniztasunarekiko jarrera irekia izan arren (tolerantzia-maila % 60 ingurukoa da), bizikidetzaren ereduari dagokionez “pixkanakako asimilazionismoa” jotzen du. Gure usadio eta ohituretara pixkanaka egokitu behar dutela uste dute herritarrek. Integratzeko ahalegina ere beraiek egin behar dutelako iritzia nagusitzen da. Immigrazioarekiko “ikuspegi utilitarista” ere nagusitzen da (paperak izatea, lan egitea etortzea eta abar). Beraz, euskal herritarren ikuspegia nahiko anibalentea da.

- Kirola edota jarduera fisikoa dela eta, Europako Kirol Gutuneko definizioa erabiliko da. Terminoa irekia dela esan daiteke: “kirola” mota guztietako jarduera fisikoa da. Parte-hartze antolatu edo bestelako baten bidez egin daiteke, eta helburuak izan daitezke egoera fisikoa eta psikikoa adieraztea edo hobetzea, gizarte-harremanak garatzea edota maila guztietako lehiaketetan emaitzak lortzea. Nabarmentzen da, baita ere, botere publiko eta erakunde pribatuen aliantza, egoera ahulean dauden kolektiboak ematen zaien arreta berezia, eta sarbidea eta kirol jarduerak bermatzea, dena dela ere erlijioa, arraza, jatorria eta abar.

- Agerian gelditu da, baita ere, kirolak ahalmena duela jatorri anitzeko pertsonak integratzeko edota gizarteratzeko, baina arrazismoan erortzeko eta bereizketak egiteko arriskua ere baduela. Ondorioztatu da gizarte-bazterkeria arriskuan erortzeko aukera handiagoak dituztela gutxiengo etnikoak, bereziki, etorkinek edota asilo-eskatzaleak. Halere, esan bezala, jarduera fisikoa edo kirola tresna egokia izan daiteke etorkinen sozializazioarako eta, zehazki, emakume musulmanen sozializazioa sustatzeko, nahiz eta horretarako dituzten zailtasunak eta mugak ezagutzea ere beharrezkoa den. Horregatik, ikerketa eta politiken beharra nabaria da.

- Kulturartekotasunaren ikuspegiarantz joatea da politika eraginkorrek egiteko bide egokiena, ikuspegi hori baita kultura ezberdinak maila berean jartzen dituen eta ekitatea gehien sustatzen duena. Ikuspegi etnozentrismo edo asimilazionistaren bidez, ulertzen da harrera-herrialdearen kultura gorena dela eta beste kulturetako herriarrek beren ezaugarriak alde batera utzi behar dituztela. Multikulturalismoak, nahiz eta kultura ezberdinak kontuan izan, ghettoak sortzeko joera dauka, kultura ezberdinetako pertsonen edo taldeen arteko harremanik bultzatzen ez delako.

- Kulturartekotasunaren ikuspegiaren ildotik politikak garatzeko, ezinbestekoa da aurretik ikerketak egitea, bai etorkinen ezaugarriak, bai immigratzeko arrazoiak ezagutzeko. Are gehiago, immigrazioa eta generoa uztartzen direnean, ikerketak behar dira emakume etorkinen ezaugarriak ezagutu ahal izateko.

- Gizarte-integrazioa prozesu gisa ulertzen duen terminotik gizarte-inklusioren terminora joan behar dela ondorioztatzen da. Prozesu, metodo eta filosofia bat baino zerbait gehiago da inklusioa, non elkarrekin bizitzeak eta arrotza denari harrera egiteak garrantzia hartzen duen.

- Gizarte-inklusiok gain, hezkuntza inklusiboaren terminoak hartu du garrantzia azkenaldian. Bazterkeriaren aurka borroka egiten laguntzen du eta mota hauetakoa izan daiteke: gizartearen, hezkuntzaren, etniaren, erlijioaren, generoaren eta ekonomiaren arlokoa. Beraz, praktika guztietan giza eskubideak bermatzean datza, baita ere soin-hezkuntzan edota kirolean. Pertsona guztien irakaskuntza eraginkorra lortzeko helburua dago. UNESCOk hezkuntza inklusiboa, ekitatiboa, kalitatezkoa, unibertsala eta bizitza osorako irakaskuntza aipatzen ditu. Kultura-aniztasuna eta hezkuntza-aniztasunaren garrantzia ere azpimarratzen du.

- Kultura-aniztasunaren harira, kontzeptu hau aberastasun eta integrazio gisa ulertzen da, eta ez banaketa edota segregazio gisa. Besteen jantzeko edo izateko moduak errespetatu behar dira; adibidez, neska musulmanek hijaba erabiltzea.

- Hezkuntza-eremuan, agerian jartzen da jarduera fisikoa gizarte-inklusioko lehen urratsa edo tresna bilakatu daitekeela, gorputz-hezkuntzaren unibertsaltasunarengatik. Horretaz gain, jolas izaerarengatik eta harremanak sortzeko gaitasunarengatik ere tresna egokia izan daiteke. Halere, ezinbestekoak dira irakasleen etengabeko esku-hartzea, kultura-aniztasunaren testuingurua ikertzea eta, aurretik aipatu bezala, irakasleen formakuntza. Kulturartekotasuna soin-hezkuntzaren bidez lantzeko estrategiez gain, eduki espezifiko horiek ikastetxearen proiektu orokorraren barnean egotea ere beharrezkoa dela adierazten da.

- Sustapen-politikei dagokienez, aurretik zerbait aurreratu den arren, gaineratu behar da arazo nagusia dela dimentsio bakarreko politikak ezartzen direla, askotan justizia sozialaren aurkakoak izaten baitira.

- Sustapen politikekin jarraituz, oso garrantzitsua da amek jarduera fisikoa egitea, horren maila bermatzeko. Ametatik alabetara doan transmisioaren garrantzia areagotu egiten da emakume arabiarren edota musulmanen artean.

- Jarduera fisikoa egitea edo ez egitea dimentsio anitzeko ezaugarriak baldintzatzen dute: norbanakoaren ezaugarriak, ingurune sozialak, erakundeak, ingurune fisikoak eta politikek.

- Etniak eta kulturak eragina dute jarduera fisikoa egitean eta praktika-mailan. Hau da, etnien arabera ezberdintasun nabarmenak daude 16 urtetik gorako helduen jarduera fisikoaren mailan. Heldu pakistandarrek, bangladeshdarrek eta arabiarrek dira aktibo egoteko aukera gutxiak eta ez-aktibo egoteko aukera gehien dutenak. Gauza bera azpimarratzen da 5 eta 16 urte bitarteko haur eta gazteen artean.

- Ikerketa honetan azpimarratzen da, baita ere, helduetan etnia eta generoa jarduera fisikoaren mailarekin lotuz gero, etnia guztietan genero-arrakala dagoela.

JATORRI ANITZEKO EMAKUMEEN ONGIZATE ETA GIZARTE-INKLUSIOA JARDUERA FISIKO EDOTA KIROLAREN BIDEZ

- Helduetan, erlijioa eta jarduera fisikoa uztartuz gero, jarduera fisikoaren mailan ezberdintasunak ikus daitezke. Musulmanek eta hinduek jarduera fisikoaren maila baxuagoak dituzte, eta budistek eta kristauak jarduera fisikoaren maila altuenak. Musulmanak diren helduek dituzte jarduera fisikoaren maila baxuenak.

- Emakumeak eta gizonak alderatzen baditugu, emakumeek kirola egiteko maila baxuagoak azaltzen dituzte, izan autoktonoa izan etorkina, nahiz eta "guztiontzako kirola" programarekin emakumearen presentzia kirolean handitzen joan den. Faktore ezberdinek arrazoitzen dute hori: kirola eta maskulinitatearen arteko lotura, emakumearen aisialdi oso txikia eta zatikatua, generoaren ondorioz dagoen denboraren banaketa soziala (denbora libre eza) eta kirola ulertzeko modua. Honako hauek ere gaineratzen dira: eskaintza ezezaguna, eskaintzaren gabezia, eskasia edo urruntasuna, ordutegi desegokiak, egoera sozioekonomikoa, muga fisikoak, gorputz-autoestimu baxua, edota emakumeen lanaldi bikoitza. Hala ere, emakumeen partaidetza kirolean handitzen ari da eta kanon tradizionalaren indarra galduz doa. Emakumeen kirol-kultura delakoa agertzen hasi da. Bestetik, emakumeek kirola egiteko motibazioak gehiago lotzen dira osasunarekin eta ongizatearekin, kapital sozialaren garrantzia igotzen doan arren.

- Emakume etorkinen kasuan, generoa dela-eta dituzten oinarritzko zailtasunez gain, etorkinak izateagatik beste hainbat muga gaineratzen zaizkie:

- Baldintzatzaile garrantzitsuenak: kultura eta erlijioa.
- Faktore ekonomikoak.
- Jarduera fisikorako sarbidea: informazio falta, hizkuntza, beraien ezaugarri eta interesetara egokitutako espazio publikorik ez izatea, autobazterketa eta denbora-falta.

- Emakume etorkinen kasuan, jarduera fisikoaren bidez lortu daitekeen harreman sozialaren areagotzeak eta gizarte integrazioa hobetzeak garrantzi handiagoa hartzen du. Bestalde, etorkinek nortasun "mugakidea" eratzen dutenez, jatorrizko gizarteko testuingurua eta harreragizartea ezagutzea beharrezkoa suertatzen da.

- Emakume etorkin musulmanen kasuan, Magreb zonako emakumeak hartu dira kontuan, honako herrialdeetakoak: Maroko, Tunisia, Aljeria, Mauritania, Mendebaldeko Sahara eta Libia. Baldintzatzaile edo muga garrantzitsuenak hauek dira:

- Islamiar erlijioa eta kultura. Islamaren arabera, jarduera fisikoa egiteko gorputza estalita egon behar da, eta generoaren arabera bereizitako espazioetan egin behar da.
- Familia-eremuari dagokionez, etxeko lan-kargak eta denbora- eta energia-faltak jarduera fisiko jarraitua egitea zailtzen du.
- Gorputzaren kontzepzioa. Emakume otzana, gozoa eta geldia izatearen ideia dago. Lotsa eta ohorea ere emakume musulmanaren mugimenduan oinarritzen dira.
- Mugimenduaren kultura onartzeko zailtasuna dago gizarte musulmanean, bereziki emakumearen mugimenduari dagokionez.

- Emakumearen jarduera fisikoa Europan aztertuz gero, Europako hainbat hiritan esperientzia onak izan dira bazterkeriari aurre egiteko, emakumeak forma fisiko ona edukitzearen bidez. Esperientzia horietatik, Bartzelonakoa izan da emakume magrebtar musulman helduei zuzendutakoa; beraz, azterlan honetarako esperientzia pilotu hori izan da oinarri. Baina, oro har, egitasmo gehiago zuzentzen omen zaizkie mutilei, gatazka-egoerak saihesteko helburua izaten delako.

- Europako bi ikerketen konparaketari erreparatuta, Britainia Handiko eta Greziako komunitate musulmaneko nerabe eta gazteei buruzko ikerketan ondorioztatu da, Britainia Handiko immigrazioa berriagoa denez, politika inklusiboak egiterakoan islamiar erlijioaren eskakizunak are gehiago hartu behar direla kontuan. Bestetik, azaleratu da ezberdintasuna adinagatik ere izan daitekeela, islamaren eskakizunak haurtzarotik helduarora handituz doazelako. Beraz, Britainia Handikoak gazteak izanik, islamaren eskakizunak handiagoak ziren; aldiz, Greziakoak nerabeak izanik, eskakizunak apalagoak ziren.

- Ikerketa honetan ondorioztatzen da politika inklusiboek bazterturiko taldeen gizarteratzea erraztu egiten dutela. Politika inklusibo baten bidez baimentzen direlako janzkera-mota (arropa gorputza estaltzeko), genero bereko/bakarreko taldeak izatea, dutxa derrigorrezko ez izatea (aukerako izatea), kirol instalazioetan aldatzeko eta duxatzeko pribatutasun handiagoa izatea (intimitatea) eta ramadan-garaian saio arinagoak antolatzea.

- **Emakumeen jarduera fisikoa jatorrizko herrialdean** (Magreben) aztertuz gero, honako hau islatzen da:

- Islama eta jarduera fisikoaren arteko lotura ezagutzea ezinbestekoa da. Nahiz eta esplizituki ez adierazi, ondorioztatu daiteke islamak jarduera fisikoa egitea baimentzen diela bai gizonezkoei bai emakumezkoei. Are gehiago, jarduera fisikoa sustatzen duela ondorioztatu daiteke, betiere baldintza batzuk aintzat hartuta, honako hauek, hain zuzen ere:
 - Talde-mota. Generoari dagokionez, bereizita izatea.
 - Jantzera. Gorputz-atal batzuk agerian eta beste batzuk estalita izatea.
 - Otoitza eta ramadan-garaia. Jarduera fisikoarengatik ezin dituzte eguneroko otoitz-praktikak albo batera utzi. Eta, bestetik, ramadana egiteko, jarduera fisikoko saioak arinagoak izan behar dira.
- Islamaz gain, kode sozialak kontuan izan beharko lirateke.
 - Gorputzari lotuta, lotsa. Gorputza lotsaren arabera bereizten da, zein atal erakutsi daitekeen eta zein ez. Emakumeen kasuan, halaber, ez dute gorputza gehiegi erakutsi behar edo gizona probokatu behar. Gorputza balio moral gisa ulertzen da islamean.
 - Hijaba edota erlijio-jantziak. Agerian gelditzen da aniztasuna dagoela emakume musulmanen artean. Jantzi-mota, derrigorrezkoa edo ez, erlijioagatik, patriarkatuagatik edota beste zergatiengatik (tradizioa, nazio-nortasuna, sinesmen pertsonala...) aldatzen da. Batzuek eremu pribatuan jantzen dute erlijio-jantzia, beste batzuek, aldiz, bai eremu pribatuan bai publikoan.
 - Ohorea. Emakumeak geldoa, pasiboa eta otzana izan behar duela pentsatzen da, gizonek askatasun gehiago dute gorputz-adierazpenerako eta mugimendurako. Emakumezkoen gorputzak lotsa sortzen du, sexu-arloarekin lotzen delako. Gainera, familiaren ohorearen gordailu edo errepresentazioa da eta, bereziki, gizonarena. Mendealdearekin harremanak ezarri ahala, hori pixkanaka aldatuz doa eta esan daiteke ez dagoela emakume magrebtar jakin bat, baizik eta askotarikoak direla.
 - Emakumearen gorputza eta kirola. Kirol-eremuan areagotu egiten denez mugimendua, lotsaren printzipioak garrantzi handiagoa hartzen du eta, ondorioz, erlijio-jantziaren gaiak ere bai. Emakume magrebtarrentzat oso zaila da gorputzaren askatasuna kirolaren bidez lortzea, patriarkatuak arautzen baitu, eta tradizioen aurkakoa izan ohi da. Beraz, kirol-eremua ez da errazenetakoa jarduera fisikoaren praktika igotzeko eta genero-berdintasuna lortzeko. Hala ere, aniztasuna dago hemen ere, emakume batzuek nazioarteko kirol-ekitaldietan parte hartzen baitute erlijio-kodeak jarraitu gabe, eta beste batzuek soilik emakumezkoen taldeetan egiten dute kirola presio soziokulturalarengatik.
- Emakumea progresiboki kirola egiten hasi zen Magreben, eskolatzetaz gero, eta soin-hezkuntza eskolaldian egitearen ondorioz. Gaur egun, Magreben emakumeen gimnasioak eta gimnasio mistoak daude, non emakumeen saioak eta gizonenak bereizten diren. Era berean, emakumeentzako hondartzak, familientzako hondartzak eta hondartza mistoak aurki daitezke. Magrebeko emakumeentzat, gune berdeak beste kirol-gune bat dira. Horiek izan ezean, islam ortodoxoaren diskurtsoa gogortu egiten da. Bestetik, landa-eremua eta hiri-eremua ez dira gauza bera, landa-eremua kontserbadoreagoa da.

Emakumea eta jarduera fisikoa harrera-herrialdean:

- Jarduera fisikoa eta kirola tresna egokiak izan daitezke egoera ahulean dauden kolektiboen gizarte-inklusioko, betiere kolektibo horren ezaugarriak, zailtasunak edota mugak ezagututa, hala nola erlijioa, kultura, eta abar.

- Baina harrera-herrialdean, kirol jardueren eskaintzak, oro har, ez du kultura-aniztasuna kontuan hartzen. Ondorioz, kolektibo horren parte-hartzea kirol-arloan txikia da, eta kirol-erakundeen aldetik ez zaio arretarik eskaintzen; jarrera irekiagoa falta da. Neska eta Emakumeentzako Nazioarteko Soin Hezkuntzako eta Kiroleko Elkarteak adierazpen baten bidez (*"Accept and Respect"*) deia egin zien gobernuei eta kirol-eremuko profesionalei emakume musulmanen gizarteratzean lan egiteko.

- Bestetik, Magrebeko emakume musulmanek "kirol" terminoa esanahi zabal eta irekiarekin lotzen dute bai praktika-motan (lehiaketa, naturan egitea, osasuna hobetzeko...), bai onurei buruz ari garenean. Onurak modu integralean ikusi ohi dituzte: fisikoak, psikologikoak eta gizarte-arlokoak.

- Emakume musulmanek kirol-jarduera baxuagoa egiteko arrazoen artean hauek daude: batetik, generoari erreparatuta emakumeek dituzten oinarriko arrazoiak (denbora falta...); bestetik, migrazio-prozesuarengatik sortzen direnak; eta, azkenik, islamiar-erlijiotik eta ezaugarri soziokulturaletatik datozen berezitasunak.

JATORRI ANITZEKO EMAKUMEEN ONGIZATE ETA GIZARTE-INKLUSIOA JARDUERA FISIKO EDOTA KIROLAREN BIDEZ

- Jatorrizko herrialdeko, zehazki Magrebeko, hainbat zailtasun desagertzen diren arren, harrera-herrialdean zailtasun berriak azaltzen dira:

- Harrera-herrialdeko portaera eta bizi-baldintzetara egokitzea.
- Bere herrialdeko tradizioei irmoago eustea eta horiek transmititzea.
- Isolamendua eta parte-hartze aktibotik urruntzea.
- Mendealdeko herrialdean, gizonezkoen rol nagusia berresteko beharra indartzen da.
- Mendealdeko gizartearen ikuspegia eta aurreiritziak immigrazioaren inguruan, eta, zehazki, emakume musulmanen inguruan.
- Aniztasunarekiko kirol-erakundeek daukaten jarrera itxia.
- Gorputz-kontzepzio ezberdina eta mugimenduaren kultura onartzeko zailtasuna.
- Kirol-jarduera maskulinoztat hartzea.
- Diruaren arloko kezkak, eta dedikazio handiagoa lanari edo dirua aurrezteari.
- Familia-arduretarako erraztasunik eza: haurtzaindegi-zerbitzua, adibidez. Edo ekintzak haurrak eskolan daudenean izatea.
- Kirol-programen urruntasuna.
- Denbora-falta: askotan lana ez izan arren, etxeko eta familiako ardurek denbora libre gutxi uzten diete (seme-alaba ugari, adinekoen zaintza...).
- Familia-arduraren bat edota oporraldiren bat azaltzean kirol-jarduera uzten dute; beraz, kirola egiterakoan irregularitasuna da haien ezaugarrietako bat.
- Lanaren banaketa sendoagoa eta argiagoa, generoaren ikuspegitik.
- Zailtasun ekonomikoak: kirol-instalazioetara sartzeko kuotak ordaintzeko mugak.
- Kirol-instalazioetan edo -eskaintzetan, emakumeentzako gun ezezifikoa ez izatea.
- Gorputza estaliko duen arropa erabiltzen ez uztea.
- Informazio-falta eta hizkuntza-arazoak.

Ondorioz, zailtasunei erreparatuta, Katalunia, Valentzia eta Legorretako esperientziei so eginez, arrakasta izateko eta **jarduera fisikoa sustatzeko baldintzatzaile egokiak** honako hauek izan daitezke, batzuk orokorrak eta beste batzuk zehatzagoak:

- Oro har, Mendealdeko gizartearen jarrera irekiagoa izan beharko litzateke emakumeek jarduera fisikoa edo kirola egiteko.
- Aurrekoarekin lotuta, emakumearen gorputzaren mugimendua onartuagoa da harrera-gizartearen. Gainera, kirola egiteko kultura femeninoak gora egin du azken urteetan, maskulinitatearen ikuspegitik pixka bat aldentuz.
- Aurreiritzi faltsuak saihesteko, herritarrek kultura-aniztasunaren balioan hezi eta kulturartekotasunaren ikuspegiaren sentsibilizatu behar dira.
- Horren harira, herritarrez gain, kirol-eragileak eta kirol-erakundeak ere sentsibilizatu behar dira.
- Emakume musulmanak mugimenduaren kulturen sentsibilizatu eta hezte, beraien abiapuntua ezagututa.
- Gorputzaren inguruko erlijio-mugarengatik eta kontzepzio soziokulturalarengatik, jarduera fisikoaren programa oso xumea izan behar da, oro har kirola egitean esperientzia gutxi izan ohi dutelako.
- Osasun-zerbitzuek jarduera fisikoaren inguruan emandako eta sustatutako gomendioek horretan lagundu dezakete.
- Jarduera fisikoa egiteko programa ikuspegi integralarekin lotuta egotea: osasuna, ongizate fisiko eta psikologikoa, eta harreman sozialak egiteko ikuspegiarekin.
- Jarduera fisikoaren egitasmoa programa orokorren baitan egiten bada, eraginkorrak izango da, haien beharrak beste hainbat alorretan nagusiagoak edota lehentasunezkoak izan daitezkeelako: enplegua, diru-sarrerak lortzea, etxebizitza, hizkuntza ikastea... Valentzian, adibidez, jarduera fisikoa beste ekintzen osagarria izan da; esate baterako jarduera kulturekin eta kirol-arloko beste ekintza batzuekin osatu da (hala nola hitzaldiak). Legorretan ere programa orokor baten barruan txertatu da, jarduera fisikoaren gaia oraindik gehiago jorratu behar den arren.
- Programen gertutasuna ezinbestekoa da etxeko lanak eta jarduera fisikoa uztartzeko. Garrantzitsua da etxetik hurbil izatea, edota alfabetatze-zentroetatik eta ospakizun erlijiosoetako zentroetatik hurbil.
- Ordutegi egokiak edota haurtzaindegi-zerbitzua izatea garrantzitsua da, haurren zaintzarekin uztartu ahal izateko.
- Familia-arduren edo oporraldien ondoriozko irregularitasuna onartzea.
- Kirol-jardueretako irakaslea emakumea izatea ezinbestekoa da. Musulmana izateak ere lagundu dezake, baina bertakoa ere izan daiteke, betiere kultura ezberdineko sentsibilitatea eta ezagutza baldin baditu.
- Faktore sozioekonomikoa aintzat hartzea ere garrantzitsua da: kuota sinbolikoak ezartzea edo doan izatea.
- Kirol-instalazio edota jardueretarako sarbidean, muga ekonomikoez gain, aintzat hartzea islamiar erlijioaren eskakizunak edota beraien ezaugarri soziokultureleko ezaugarriak. Hau da, soilik emakumeentzat diren kirol-guneak eta kirol-jarduerak eskaintzea gizonezkoen begiradetatik kanpo, jarduera mistoez gain. Mistotetan, oro har, emakume musulman hauek parte hartzen dute: mugimenduaren kultura eta mugimenduaren esperientzia handiagoa dutenak, harrera-herrialdeko hizkuntza

menderatzen dutenak, hiri-eremuak eta burujabetzan aurreratuago daudenak.

- Aurrekoarekin lotuta, kirol-instalazio eta -jardueretan parte hartu ahal izateko, gorputza estaliko dien arropa erlijiosoaren erabilera onartzea.
- Kontuan hartzea ramadan-garaian jarduera fisikoa ez dutela egingo edota arinagoa egingo dutela.
- Kirol-eskaintzaren informazioa helaraztea eta hizkuntza ezberdinak erabiltzea hori helarazteko. Era berean, modu ezberdinak erabiltzea alfabetatuta ez dauden emakumeen kasuetan.

- Esperientzia hauetan, oro har, oso ondo funtzionatu dute etorkinen elkarteek edo etorkinak laguntzeko erakundeek, bai hiri eta herrietan, bai auzoetan. Bertan, kultura ezberdinetako etorkinak dituzte (latinoamerikarrak, europarrak, musulmanak...) eta bertakoek ere parte hartzen dute. Kirol-klub tradizionalak ez dute horrenbeste parte hartzen.

- Sustapen-politikei dagokienez, garrantzitsua da erakunde publikoek politika-ekimenak martxan jartzea egoera ahulagoan dauden pertsonen jarduera fisikoa sustatzeko. Beste aukera bat da etorkinen elkarteek ekimenari laguntza ematea edo ekimen pribatuari babesa ematea, lankidetzak publiko-pribatu egokiaren bidez. Eta, noski, bata bestearen lana bikoiztu edo oztopatu gabe. Bestetik, urtebeteko politikek hazia jarri dezaketen arren, urte askotariko politikak eta politika jarraituak ezinbestekoak dira.

- Erakunde publikoen baitan ere, ezinbestekoa litzateke zeharkakotasuna edo sare-lana egitea. Hau da, erakunde publikoko kirol-zerbitzua eta gizarte-zerbitzua harremanetan egotea, eta horiek harremanak izatea osasun-zerbitzuekin ere. Halaber, garrantzitsua da hezkuntza-erakundeekin harremanetan egotea, ikastetxeen bidez ikasleen jatorri musulmaneko amekin harremana ahalbideratu daitekeelako.

- Era berean, garrantzitsua da, jarduera berriak sortzeaz gain, egun dauden jardueretarako politika inklusiboak egitea. Horretarako, dauden erakunde eta elkarte ezberdinen jarduerak identifikatzeko eta egokitzeak emakume musulmanen partaidetza erraztu dezake.

- Gehienek modu "ez antolatuan" egiten du jarduera fisikoa: aire librean, ez oso ikusgarri, edo etxean. Batzuek arestian aipaturiko elkarteetan.

- Oro har, ezaugarri garrantzitsuenetako bat honako hau da: "ikusezintasuna". Esperientzia dutenak edo mentalitate irekiagoa dutenak agian gimnasio misto batera hurbiltzen dira, baina beti atentzioa deitu gabe, gorputza estalita. Eta besteek, aldiz, etxean egiten dute edo erlijio-jantziarekin paseatzen dute jendea ez dabilen leku eta orduetan. Beste batzuek, berriz, emakumeak soilik dauden taldeetan parte hartzen dute.

- Beste hainbat arlotan bezala, ez dago emakume musulman eredu bakar bat; beraz, aniztasuna kontuan hartzea beharrezkoa da; hortaz, esku-hartze askotarikoak proposatzea ere bai. Dena den, azterlan honetatik esku-hartzerako baliagarriak izan daitezkeen hainbat ezaugarri ondorioztatu dira eta horiek aintzat hartzea gomendagarria litzateke.

AURRERA BEGIRA IKERTU DAITEZKEENAK

- Emakume helduei buruzko ikerketa izan denez, **neska eta gazte musulmanen** jarduera fisikoa sustatzeko ikerketak egitea. Horiek Lehen Hezkuntzan, Eskola Kirolean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, beste ikasketetan eta unibertsitatean egin daitezke. Hautzaroen politika horiek arinagoak izan litezke, islamaren betebeharrak pubertarotik aurrera hasten baitira sendotzen.

- Horri jarraituz, **jatorri anitzeko familietako alaben** jarduera fisikoa sustatzeko azterlan bat jorratzea; izan ere, horiek harrera-herrialdean jaioak izan arren, gurasoen jatorriko herrialdearen erlijioaren eta testuinguru soziokulturalaren eragina dute. Bi kulturen artean daude eta identitatea eratzeko zailtasunak dituzte. Beraz, bi kulturen arteko gatazka horretan, politika zehatzak behar dituzte.

- Azterlan hau emakume musulmanei buruzkoa izan denez, **gizon musulmanei, haurrei, nerabeei eta helduei** zuzendutako azterlan bat falta da.

- Gizarte ekimeneko dar-dar kooperatibaren lanari jarraituz, **helduen erreferentziarik gabeko adingabeak** diren gaztetxoek politikak garatzeko daude.

- Etorkinez gain, **errefuxiatuentzat eta asilo-eskatzailentzat edo paperik ez dutenentzat** ere jarduera fisikoko politikak bideratzeko azterlana gomendagarria litzateke.

2.3. MUGIMENT GIPUZKOA:

Mugiment estrategiak bereziki pertsona inaktiboentzako politikak biltzen ditu. Mugiment Gipuzkoa estrategiaren pean hainbat ekintza garatu ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak Kirol Zerbitzutik, txosten honetako azterketa egin aurretik. Hona hemen beste jarduketak-ildoak:

a) KOZ (Kirol-Orientazioko Zerbitzuak). Mugiment egitasmoak jarraitzen dituen lan ildoen artean dago Jarduera Fisikoaren Orientazio Zerbitzuak edo Kirol-Orientazioko Zerbitzuak sustatzea, MOEren (Munduko Osasun Erakundea) gomendioetara iristen ez diren pertsona ez-aktiboak lehenetsiz. Horretarako, norbanako ezaugarriez gain, bakoitzaren bizitzan jarduera fisikoa txertatzeko dituzten oztopo sozialak eta testuingurukoak ere aztertzen dira. Eta irtenbideak bilatzerakoan, plangintza pertsonalaz haratago, ikuspegi komunitarioaz baliatzea ezinbestekoa ikusten da.

Gipuzkoako Kirol-Orientazioko Zerbitzuak

b) Desgaitasunaren arretarako ereduak

Mugiment Gipuzkoa estrategiak, bizi-baldintzetan oinarrituta, bere burua desgaitutzat duen Gipuzkoako biztanleriaren % 10i ematen dio arreta (Euskadiko Osasun Inkesta, 2018).

Dibertsitate funtzionala duten biztanleen artean bizitza aktiboa sustatzeko bi ildo daude: lehenengoa eta lehentasunezkoa kirol-inklusioko sustatzea da (SARTU estrategia deitu duguna). Bigarrena, garapen aukerak agortu ditugunean martxan jartzen duguna da, eta berariazko eskaintza bereizi baten garapenean oinarritzen da (SEGI estrategia). Desgaitasunari arreta Gipuzkoan

c) Esku-hartzeko lehentasunezko populazio taldeak

Gipuzkoan lehentasunezko 3 talde zehaztu ziren horien artean, jarduera fisikoa sustatzeko eta sedentarismoa murrizteko. Era berean, horretarako esku-hartze proposamenak bildu ziren. Honako populazio taldeak lehenetsi ziren:

1. 0-8 urte bitartekoak
2. Familia-bizitza eta lan-bizitza jarduera fisikoarekin uztartzea - 25-44 urtekoak
3. Adineko pertsonak - 65 urtetik gorakoak

Esku-hartzeko lehentasunezko taldeak

d) Jarduera fisikoa sustatzeko patologien araberako gidak

Aurretik aipatu den bezala, aktibo izatea ez da soilik norberaren erabaki hutsa. Baldintzatzaile ugari daude jokabide hori oztopatzen dutenak. Horien artean, pertsonak pairatzen ari diren patologiak daude, bizitzako une giltzarriak, eta abar. Horregatik, patologien araberako gidak egin ziren jarduera fisiko eta kiroleko profesionalen baliabide gisa erabili ahal izateko.

Patologien araberako kirol-aholkuen gidak

e) Hobariak klubetan Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentaren (DSBE) jasotzaileei

Ekitatearen ikuspegitik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzutik sustatu da klubek % 75eko hobaria ezartzea kirol lizentziak izapidetzeko, gutxienez 15 pertsonatik bati diruz laguntzeko DSBE onuraduna den kasuetan. Horrela, onuradun horien oztopo sozioekonomiko hori gainditzeko aukera erraztu eta eremu federatuko partaide izateko aukera ahalbidetuko da hein batean.

f) Emakumeok mugimenduan aterkipean ekitateari arreta ematea: Jatorri anitza + generoa + erlijioa uztartzea. Ebidentzian oinarritutako azterketa hori genero ikuspegia eta ikuspegi intersektionala aintzat hartuta sortu zen. Kultura-aniztasuna kudeatzeko estrategia gisa kulturarteko ikuspegia izan da gizarte-inklusioko errazteko estrategia arrakastatsua. Giza Eskubideak eta Kultura Demokratikoko Zuzendaritzarekin lankidetzan aritu dira.

Ezagutzatik esku-hartzera joateko jauzi honetan, lehenik esku-hartze pilotuak egin dira. Horien artean, Donostian egindakoa nabarmendu daiteke, Haurralde Fundazioaren bidez (Mestiza elkartearekin lankidetzan).

Ondoren, Ordizian gauzatu da Ordiziako Udalarekin koordinazioan 2023-2024 ikasturte osoan. Ekintza oso berritzailea izan da, igeriketaren bidez emakume musulmanei bermatu baitzaie burkiniaren erabilera. Gainera, 2024-2025eko ikasturtean hori egonkortzeko aukera izan da, eta Igeri Kolore deitu zaio (Biztanle-kopurua 10.217, atzerritarrak % 20,1, Eustaten arabera 2023-01-01ean).

Eta, azkenik, Bergarako udalerrian, Bergarako Udalarekin eta bertako erakundeekin batera, programaren diseinuaren lanketa egin eta abian jarri da 2024ko azarotik 2025eko urtarrilera bitartean (Biztanle-kopurua 14.739, atzeritarrak % 11,2, Eustaten arabera 2023-01-01ean).

Ondoren azaltzen dira aipaturiko ekintzak:

f.1) Donostian, Haurralde Fundazioarekin (Mestiza elkartearekin lankidetzan).

2023ko maiatzeko larunbatetan, Anoeta Pasealekuko Kirol Etxean emakumeen eta kirolaren kulturarteko zikloa egin zen. Integrazio-loturak sendotzeko, bakoitzaren elkartasuna eta autonomia sustatzeko eta bizimodu osasungarria sustatzeko pentsatutako espazioa izan zen. Hainbat jarduera egin ziren, hala nola zoru pelbikoa indartzeko ariketak, eta ibilketa nordikoaren bariante errazago bat eta elikadurari buruzko informazioa eman zen. Programa horiek Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Emakumeok Mungimenduan programaren babesari esker egin zen, Giza Eskubideak eta Kultura Demokratikoa zuzendaritzarekin elkarlanean. Esku-hartzearen diseinuan eta garapenean ezaugarri sozioekonomiko, soziokulturalak eta erlijioa aintzat hartu ziren.



Agiri honetako bi lan-nagusiak osatzeko **Haurraldeko arduradunek ondorengo onura eta esku-hartzeko modu eraginkorrak azpimarratu** nahi izan dituzte ere:

- Jarduera fisikoaren bidez **harreman sozialak** eraikitzen laguntzen dulea, eta nahigabeko bakardadea muriztuz eta talde bateko kide sentituz. Eta ondorioz, osasun mentala ere hobetzen dela.

«Un estudio de Giles-Corti y Donovan (2002) encontró que la participación en actividades físicas, incluyendo deportes en grupo, está asociada con una mejor salud mental, reduciendo síntomas de depresión y ansiedad. Este beneficio es particularmente importante para mujeres en situación de vulnerabilidad, ya que la práctica deportiva proporciona un espacio seguro y positivo fuera del entorno familiar. **El deporte facilita la creación de redes sociales, promueve el sentido de pertenencia y reduce el aislamiento social, lo cual es esencial para el bienestar mental en contextos migratorios restrictivos**». (Donnelly, P y J. Coakley (2002) The Role of Recreation in promoting social inclusion in Perspectives on social inclusion. Laidlaw Foundation. https://laidlawfdn.org/assets/wpsosi_2002_december_the-role-of-recreation.pdf)”

- Aukera berdintasuna areagotu eta **ateak irekitzen dira hezkuntzara eta lan- mundura**. Gainera, **diskriminazioa eta arrazismoa jaisten** laguntzen da, **generoarekiko, arrazarekiko eta egoera migratzailean dauden pertsonetako** estereotipoak hobetuz.

«Acceso a oportunidades; puede **abrir puertas a oportunidades en lo educativo y laboral**. Por último y no menos importante, ayuda en la **reducción de la discriminación y el racismo**, ya que se pueden desafiar y cambiar estereotipos negativos y reducir la discriminación basada en género, raza o estatus migratorio”.

- Nabarmentzen dute, berriz ere, jatorri anitzeko emakumeen artean jarduera fisikoa sustatze aldera, arreta berezia jarri behar dela kultura dinamiketan eta emakumea eta kirolaren arteko harremanean.

«La promoción de la práctica deportiva en mujeres migrantes requiere una atención particular a las dinámicas culturales y la relación entre la mujer y el deporte. Estudios recientes subrayan la importancia de adoptar una perspectiva que integre factores culturales, sociales y personales en la promoción de actividades físicas entre mujeres migrantes. Por ejemplo, investigaciones realizadas por el Consejo Europeo del Deporte y el Instituto de Política de Migración señalan que las barreras culturales, la falta de familiaridad con las estructuras deportivas y la ausencia de tradición deportiva en el entorno familiar son desafíos significativos para las mujeres migrantes en la participación deportiva. Además, de miradas específicas a las cuestiones de género y diversidad si se desea una plena inclusión social».

- **Kirola taldean egiteak bakarka egiteak baino eragin positiboagoa duela gaineratzen dute,** osasun fisikoaz gain, harreman sozialak egiteko eta komunitateko kide izaten laguntzen duelako.

“Asimismo, se ha demostrado que las **prácticas deportivas grupales** tienen un **impacto positivo** no solo en la salud física, sino también en la creación de redes sociales y la integración comunitaria. Un estudio de la Universidad de Birmingham reveló que las mujeres migrantes que participan en actividades deportivas en grupo desarrollan relaciones de apoyo mutuo que no solo facilitan la continuidad en la práctica deportiva, sino que también contribuyen a su bienestar emocional y social. Estas relaciones funcionan como un factor de cohesión y sostén, haciendo que la práctica deportiva sea más sostenible a largo plazo.”

- **Jatorri anitzeko emakumeak dauden lekuetara joatea** komenigarria dela aipatzen du, beraien zain egon gabe. Adibidez: emakumeen elkarteak eta emakumeek irakurtzen eta idazten ikasteko topaguneek aintzat izatea ere komenigarria litzateke, beraien parte-hartzea sustatzeko.
- **Lidergoa** ere kontuan hartzea garrantzitsua da jatorri anitzeko emakumeetan jarduera fisikoa sustatzeko, eta bereziki, aurretik kirolik egin ez duten emakumeak motibatze eta kirola uztea murrizteko edota sahiesteko.

El **liderazgo** dentro de estos grupos se destaca como un elemento clave para mantener la motivación y reducir la tasa de abandono, especialmente entre aquellas mujeres que no tienen una historia previa de actividad deportiva. Según un estudio del Journal of Sport and Social Issues, el liderazgo efectivo en grupos deportivos fomenta un sentido de pertenencia y compromiso, ayudando a superar la tendencia a abandonar la práctica ante las primeras dificultades.

- **Komunitateko emakume erreferenteak** identifikatzeari eta horiek balioan jartzeari ere garrantzia ematen diote.

Utilizar estrategias que se basen en la **identificación y promoción de referentes dentro de la comunidad.** Al destacar a mujeres migrantes que han sobresalido en deportes, se crea un espacio en el que otras mujeres migrantes pueden verse reflejadas, lo que facilita la identificación y la motivación para participar. Estas referentes deportivas pueden actuar como hilo conductor para iniciar y consolidar la práctica deportiva dentro de la comunidad, ofreciendo una conexión tangible y un ejemplo a seguir.

- Laburbilduz, **ikuspegi integralarekin** lan egitea ezinbestekoa dela azpimarratzen dute, **jatorri anitzeko emakumeen kirol kultura sendoa eraikitzen joateko.**

“En resumen, para construir una cultura deportiva sólida en mujeres migrantes, es esencial trabajar desde **una perspectiva integral** que incluya el fomento de relaciones grupales, el liderazgo, y una sensibilización sobre los beneficios del deporte, especialmente en contextos donde no existe una trayectoria previa en la práctica deportiva.”

f.2) Ordizian Udalarekin eta Ordizia Kolore ekitaldiarekin

Aurreko esku-hartze pilotuaren ondoren, Aldundiko Kirol Zerbitzuak, Ordiziako Udalarekin, Izan zentroko aniztasun teknikariarekin eta Ordizia Kolore etorkinen taldearekin elkarlanean urarekin familiarizatzeko eta igerian ikasteko ur-saioak antolatzen zituen 2023ko azken hiruhilekoan. Ekintza horretan faktore sustatzaileak ezarri ziren, premia sozioekonomiko, soziokultural eta erlijiozkoak kontuan izanik. Izandako arrakasta medio, eta azpiegitura publiko komunitarioa jauzi eginik (Majori kiroldegira), zehazki, igerilekura, horrek zekartzan inplementazio garrantzitsuekin, esku-hartzea 2023-2024ko ikasturte osora luzatzea erabaki zen, eta hala egin zen. Bi

talde izan ziren, eta astean behineko saioak burutu zituzten. Guztira 24 emakume izan ziren, baina 40 inguru pasa ziren, bajak eta altak medio, erdiak musulmanak. Jatorri ugaritako emakumeek parte hartu zuten: Europar Batasuna, Hego Amerika, Afrika eta Asia. Bertako emakumeen partaidetza ere lortu zen kulturartekotasuna bermatze aldera, partaidetza urria izan arren.

2024-2025 ikasturtean Irailaren 16an hasi ziren ur jarduerak eta 26 emakumeek eman zuten izena. IgeriKolare deitu zaio egitasmoari. Gehienak aurreko ikasturtetik jarraitu zuten, baina alta berriak egon ziren. Saiotara bertaratzeko iturriak hauek izan dira: Bizitza-al Hayat Jatorri Anitzeko Emakumeen Espaziotik, Ordizia Kolore jatorri anitzeko espaziotik, Gizarte Zerbitzuetatik, Goierriko HHI-EPAtik eta ahoz-ahozkotik. Jatorriari begira, hainbat lurraldetatik Ordiziara bizitzera etorritako emakumeek eman zuten izena: Bolivia (1), Brasil (1), Maroko (11), Mexiko (1), Nigeria (2), Peru (5), Sahara (2) eta Ukraina (2). Ikus daitekeen moduan, emakume guztien erdiak islamiar erlijioak dira. Guztira 26 emakumeek parte hartzen dute.

Guzti horietatik sei baja egon dira eta arrazoi nagusia lanarengatik izan da, nahiz eta ikasketak eta bizileku aldaketak ere arrazoi izan diren.

Adinaren aldetik, 17 eta 56 urte bitartekoak izan dira.

Egun, jardueraren memoria kuantitatibo eta kualitatiboaren emaitzen (bai partaide bai erakunde ekintzaileena) balorazio positiboarekin eta egitasmoaren balio erantsiarekin xede diren pertsonen ongizatea hobetzeko, gizarte-inklusioa kulturartekotasunetik sustatzeko eta ikuspegi komunitariotik jarduteko, egitasmoari iraunkortasuna emateko neurri eta irtenbideak zehazteko unea iritsi da.



1. Irudia: Ordiziako esku-hartzeko hainbat ezaugarri



2. Irudia: Ordiziako ur ekintzetako irudia, Majori kiroldegian.



3. Irudia: Ordiziako ur ekintzetako balorazioa, Majori kiroldegian.

f.3) Bergaran Udalarekin diseinu fasean eta garapenean

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuak egitasmo horiek egiturazko bilakatzeaz gain, lurraldera hedatzea du helburu. Ondorioz, Gipuzkoako udal guztiei gonbidapena luzatu zien eta Bergarako Udalak bere interesa adierazi ondoren, egitasmoa diseinatzeko hasi ziren 2024ko urtarriletik aurrera eta Bergarako Udalaren artean. Lan-ildo hau sare lanean eta zeharkakotasunez abiatu da Bergarako Udaleko Kirol Saila, KOZa eta Berdintasun Saila partaide izanik. Komunikazio ekintzen barne, jabetze-eskolako hedapen agirian txertatu da eskaintza eta kartel espezifikoak atera da, hizkuntza ezberdinak barneratuta (elebi ofizialak barne). Elko Biltzen aholkularitza bidez udal langileak sentsibilizatu eta trebatu dira kulturantzatasunean eta kulturartekotasunean.

- o Diagnosi eta abiapuntua Aldundi eta Udalaren artean egin ondoren, *Gelditzeke* deituriko Bergarako Kirol Orientazio Zerbitzua (KOZ) bidelagun izanda, aurkezpena luzatu zitzaion jatorri anitzeko emakumeak artatzen dituzten Bergarako hainbat eragile eta erakunderi, hala nola HHI-EPA (Helduen Hezkuntza) erakundeari, Caritasi eta Ndank Ndank-ari. Urtarriletik aurrera bitartean hainbat bilera egin dira egitasmoa diseinatzeko joateko eta 2024-2025 ikasturtean udalerrian ezartzeko asmoa izaki, jarduera fisiko anitzeko programa elkarrekin diseinatu da. Jada egitasmoa abian dago, emakume migranteek osatutako bi talde eratu direlarik, bata Bergarako HHI-EPAren kolaborazioarekin, eta bestea txanda irekitik aurrera aipaturiko elkarten bidez. Bigarren talde hori kirol eta berdintasun sailetatik herritarrei hedatutako deialdiaren bidez osatutakoa izan da.

HHI-EPAtik 24 emakume eman dute izena, jatorri ezberdinetakoak: 1 Alemania (Europa), 2 Pakistan (Asia), 15 Maroko (Afrika), 2 Aljeria (Afrika), 2 Nigeria (Afrika), 1 Senegal (Afrika). Azpimarragarria da emakume musulmanengana ailegatu izana.

Txanda irekian, berriz, 11 emakumeen izen-ematea jaso da: 9 Maroko (Afrika) eta 2 Venezuela (Amerika). Txanda hori berriz irekitzeko asmoa dago, edukiera bete arte. Guztira 35 emakume eman dute izena.



Ordiziako ur ekintzetako taldea,
Majori kiroldegia

3. SOZIALKI KALTEBERAK DIREN EDOZEIN GIZATALDEETAN KIROLA SUSTATZEKO OINARRIZKO PRINTZPIO ETA ESKU-HARTZEAK (Iturri nagusia: SIIseko ikerketa, Gizarte eta ekonomia bazterketa egoeran dauden pertsonen artean kirola sustatzea, 2018):

3.1. OINARRIZKO PRINTZPIOAK

Sozialki kalteberak diren gizataldeetan kirola sustatzeko oinarrizko printzipioei so eginez gero, SIIseko ikerketak (2018) ondorengo dio: “Sozialki egoera ahulean dauden gizataldeetan jarduera fisikorik ezari buruz eta kirola sustatzea helburu duten politika publikoei buruz gaur egun dagoen literatura zientifikoa berrikusiz gero, kirol jarduera maila txikiago haven azpian elementu komun batzuk daudela”.

Ondoren, jarduera fisikoa sustatzeko **oinarrizko hamar osagai** zerrendatu eta deskribatuko dira:

1- Ikuspegi komunitario bat aplikatzea

SIIseko txostenaren arabera (2018): “Literatura bat dator: **gizatalde baten** (sozialki egoera ahulean dauden pertsonen osatutako gizatalde baten) **jarduera fisikoa baldintzatzen duten ohituretan aldaketa bat sustatu nahi bada**, landu behar den ekosistema komunitatearena da, azken finean hortxe azaltzen baitira bai **faktore indibidualak** bai **faktore sozialak, fisikoak, ekonomikoak eta kulturalak**”.

Gipuzkoako Foru Aldundiak erronka sozialei aurre egiteko ikuspegi komunitarioaren aldeko apustua egiten du 2022an garatutako marko komunitarioari buruzko agirian. Ikuspegi horren lehentasunak zehaztean, ondorengo azpimarratzen du: “bereziki nabarmendu behar direla soilik erantzun komunitarioa izan dezaketen erronka sozialak: hala nola, gizarte kohesioa dibertsitate handiko gizarte batean, berdintasunaren aldeko eta bazterkeriaren aurkako borroka edota elkarrekiko laguntzan oinarritutako ongizate komunitarioko tresnak eraikitzea”.

2024-2027ko Plan Estrategikoan honako hau ere jasotzen da: “1.2 helburua: **Pertsona guztien zaintza eta babesa bermatzea, arreta pertsonalizatuaren, kalitatezkoaren eta inklusiboaren** bidez, gizarte zerbitzuen sarea indartuz, konektatuz eta ebaluatuz, berrikuntzan eta berdintasunean oinarrituta”. Eta helburu hori lortzeko ekintza-lerroetako bat da izaera komunitarioa bultzatzea, beste hainbaten artean.

GAPPAk (2018-2030), bestalde, bere printzipio gidarietan jasotzen du komunitateen mobilizazioa eta inplikazio aktiboa funtsezko gakoak direla jarduera fisikoa sustatzeko eta sedentarismoa murrizteko.

2- Irisgarritasun baldintzak erraztea

Oro har, **irisgarritasun fisiko eta ekonomikoa erraztea** ezinbesteko estrategiak dira, zaugarritasun egoeran dauden gizataldeei jarduera fisikoa egiteko aukerak areagotzeko. Esaterako, jarduerak hurbil izatea, edota bertaratzeko bai garraio aktiboko aukerak bai garraio publikoa izatea, erabilera librekoak izatea edo ia kosturik gabekoak, eta abar.

GAPPAk (2018-2030) gai hau ingurune seguruak sortzearen “Espazioak eta guneak” atalean jasotzen du: Beren hiri eta komunitateetan gune eta espazio seguruak eskuragarri izateko adin guztietako pertsonen duten eskubidea sustatu eta babesten duten inguruneak sortzea eta mantentzea.

SIISeko azterlanaren arabera (2018) “jarduera fisikoak garatzeko **aukera-irisgarritasuna erraztea** funtsezkoa da jarduera fisiko hauek eguneroko jardueren parte izatera igaro daitezen eta horien onurak denboran iraunkorrak izan daitezen. Sozialki kalteberak diren pertsonen gizataldeak aurre egin beharreko **zailtasun gehigarriak** kontuan hartuta, ikerketek agerian jartzen dute esku-hartzerik arrakastatsuenetako batzuk bat datozela gorputz jarduera egiteko aukerak zabaltzearekin, egoera ahuleko gizataldeen ingurunetik hurbil eta ia kosturik gabe, nahikoa izanik horretarako irisgarritasun fisikoa hobetzea eta irizpide jakin batzuk egokitzea edo kostu ekonomikoak beste modu batez planteatzea”.

3- Arauak malguak izatea eta pertsonen eta gizataldeen premietara egokitzea

Jarduera fisiko edota kirol munduko eragileek eta, bereziki, politika publikoak garatzen dituztenek, sozialki kalteberak diren gizataldeen sarbidea errazteko, xede diren gizataldeen **beharrak ezagutu eta aintzat** behar dituzte kirol eskaintza sortu eta garatzerakoan. Horretarako, malgutasunarekin jokatu behar dute, eta eskaintza hori aipaturiko ezaugarriekin modu iraunkorrean eskaintzea eta bermatzea ezinbestekoa da.

Lehenik, azpimarratu behar da Gipuzkoako Foru Aldundiko 2024-2027ko Plan Estrategikoaren zutabe nagusietako bat dela herritar guztien ONGIZATEA sustatzea. Ongizate hori, gainera, modu integral batean ulertzen da:

“1.1 helburua: Pertsonen ongizate fisiko eta emozionala zaintzen eta prebenitzen duen gizartea bultzatzea, bizitza proiektu asebateak izan ditzaten aukerak ahalbidetzen dituen. Ekintza lerroak:

- 1.1.1 ekintza lerroa: Herritarren ongizate emozionala lantzea, eta horren inguruko arazoez sensibilizatzea eta artatzen laguntzea, prebentzioan eta pertsonalizazioan sakonduz.
- 1.1.2 ekintza lerroa: Bizitza ohitura osasungarri eta aktiboa sustatzea, besteak beste, kirolaren, ariketa fisikoaren eta elikadura osasungarriaren onurei buruz sensibilizatuz eta adikzioak bezalako errealitateen prebentzioan sakonduz”.

SIISeko txostenaren (2018) arabera: “Egoera ahuleko gizataldeekin aritzeak eskatzen du batzuetan ingurune konplexuetan lan egitea, eta horrek bere aldetik **malgutasun** jakin bat eskatzen du, ekintzak pertsonen, gizataldearen eta ingurunearen beraren **premia berezietara egokitzeko**. Denboran iraungo duten emaitza onak lortu nahi badira, jarduerarako sarbidea oztoka dezaketen alderdi guztiak egokitu beharko dira gizatalde jomugaren lehentasunetara eta premietara”.

Malgutasuna puntualki soilik ezartzeak ez du gizarte-eraldaketarik bultzatuko. Aldiz, horretarako, esku-hartzea denboran **modu jarrai, egonkor eta iraunkor batean** ezartzea beharrezkoa izango da, gizartearen nolabaiteko eragina lortu nahi bada, bai pertsona aktibo gehiago izateko, bai justizia sozialerantz abiatzeko. Horregatik, emakume musulmanen partaidetza lortzeko, Gipuzkoan zehar hiru udalerrietan gauzatutako pilotuetan, **arrazoi soziokulturalengatik** dituzten **premiak** aintzat hartu eta ezarri dira. SIISeko txostenak (2018) kontu hori honela jasotzen du: “Malgutasun hau iraunkorra izan behar da, programa garatu ahala egokituz joan dadin, ezaugarri kultural ezberdinetara. **Adineko pertsonen kasuan gizarte harremanak** finkatu nahian, **emakume musulmanen kasuan ezaugarri soziokulturalak**, edo/eta **pertsona latino eta afroamerikar batzuen kasuan musikak** astialdian duen garrantzia, adibidez, kontuan hartu ohi ez diren faktoreak dira eta, hala ere, programen arrakasta erabat baldintzatzen dute”.

4- Ahalduntzea eta kudeaketa parte hartzailea

Kalteberatasun egoeran dauden gizataldeak **ahalduntzea** eta proiektuaren fase ezberdinen **parte izatea** garrantzitsua da, programaren arrakasta lortu eta ezarritako helburuetara ailegatzeko.

“Gizarte desabantaila egoeran dauden gizataldeen artean jarduera fisikoa sustatzeko testuinguruan, ahalduntzea elementu giltzarri bat da parte hartzea sendotzeko eta esku hartzearen onurak epe ertain eta luzean finkatzeko. Ondo dabilzan esku hartzeak batez ere ondo ibiltzen dira proiektuaren arduradunek parte hartzen dutenekin lotura estuak dituztenean, eta proiektuaren antolaketan, garapenean eta ebaluazioan haiek ere parte hartzen dutenean” (SIIS, 2018).

5- Motibazioa: sentsibilizazioa, informazioa eta harreman iraunkorrak

Gizatalde horien beharrak bere **osotasunean** hartu behar dira kontuan, **jarduera fisikoaren mailaz gain** gizarte-mailako **arazo nagusiagoak** izan ohi baitituzte (enplegua, etxebizitza, hizkuntza...). Era berean, ohartu behar gara jarduera fisikoaren bidez izan ditzaketen **zuzeneko onuraz gain, zeharkako onurak** ere badirela, non beraien bizitzako premia nagusietarako lagungarriak izan daitezkeen. Eta horietaz kontziente izatea garrantzitsua da, bai erakunde arduradunen kasuan, bai jomuga den gizataldeko pertsonen kasuan.

SIIseko agiriaren (2018) arabera: “(...) **jarduera fisiko maila altuak erdiestea ziur aski ez da lehentasuntzat jo behar gizarte bazterketa egoeran dauden pertsonen artean**. Era berean, jarduera-maila baxu hauek gizarte berdintasunik eza okerragotzen dute: osasun okerragoa, gizarte bakartasun handiagoa, enplegararritasun eta produktibitate txikiagoa, e.a. Hori dela eta, **jarduera fisikoa egiteak berekin dakartzan zuzeneko onurak (osasuna eta ongizatea) eta zeharkako onurak (sozializazioa, lan aukerak...) gizatalde hauei azaltzea ezinbestekoa da, ohiko lehiaketa-balioetatik oso urrun egoten diren onura horiez kontziente izan daitezen**”.

Sporting Cities Opposite Racism in Europe (SCORE, aurrerantzean) egindako gidaliburuak (2024) kirolaren garrantzia bi moduetara ulertzen du, eta tokian tokiko politiketan biak uztartzeko aldarrikapena egiten du:

- 1- **Kirolaren bidez arrazakeriaren aurka egitea**, talde-kohesioa eta gizarte-inklusioa sustatuz. Horretarako **dekalogo** bat proposatzen du (ikus 28. or.)
- 2- **Kirolean dagoen arrazakeriaren aurka egitea**. Horretarako estrategia nagusiak **sentsibilizazioa** eta **formakuntza** direla uste dute. Gertakarien aurrean tolerantzia 0 estrategia bultzatzen dute baita ere.

6- Zeharkakotasuna eta integritasuna

Ezinbestekoa da jarduera fisikoa **modu integralean** sustatzea kalteberatasun egoeran dauden gizataldeetan, talde jakin batean edo jarduera zehatz batean soilik zentratu gabe. Era berean, garrantzitsua da **zeharkakotasunez** lan egitea, erakundeen eta herritarren arteko lankidetzan oinarrituta.

SIIseko txostenaren (2018) arabera: “Oro har, desabantailan dauden gizataldeetan jarduera fisikoa sustatzeari buruzko literatura espezializatuk badirudi ondorioztatzen duela beharrezkoa dela ikuspegi guztiak osorik jorratzea, ekimenak arrakastatsuak izango badira: egoera ahuleko gizatalde bakar batean ez da oinarritu behar, eta ez du jarduera fisiko bakarra sustatu behar; aitzitik, bi faktoreek estu loturik joan behar dute.

Gaineratu dutenez, kirolaren eskuragarritasunean ekitatea bilatzen bada, duen konplexutasunagatik eta **aldagai ugari** esku hartzen duten gaia denez, **politika horien arrakasta maila eta eremu desberdinetako eragileen lankidetzak ekarriko du**. Honela azaltzen du SIIseko txostenak (2018) arestian aipaturikoa: “Adituek azpimarratzen dutenez, kirol irisgarritasunaren ekitatea eragozten duten oztopoak ezin dira era isolatu batez jorratu. Kirol klubek, toki erakundeek eta estatu erakundeek gizarte zibilarekin aritu behar dute **elkarlanean dimentsio anitzeko ekimenak abian jartzeko**, non jorratuko baitira hainbat eta hainbat alderdi, esaterako, hezkuntza, garraioa, kaleko esku hartzea, e.a.”.

GAPPAk (2018-2030) honen aldeko apustua egiten du: sektore anitzeko ikuspegi osotariko eta integratu bat aplikatzea biztanleriaren ariketa fisikoko maila igo eta sedentarismoa murrizteko. Ekintza plan honen gauzatzeak maila guztietako eragileen arteko lankidetzak eta kooperazioa bultzatu beharko lukeela dio.

Azkenik, badakigu kirolaren munduan egiturazko indarkeria dagoela hainbat eremutan eta hainbat kolektiboren aurka, hala nola emakumeen edo LGTBI kolektiboaren aurka, eta jatorri desberdineko pertsonen aurkako egiturazko arrazismoa dagoela. Beraz, **matxismo estrukturalaren, LGTBIfobiaren eta arrazismoaren inguruko sentsibilizazioa, prebentzioa eta zero tolerantzia** ezinbestekoa da kirol-erakundeetan. Ildo horretan, garrantzitsua da, halaber, eragin ohi duen lehiakortasun-egoeretatik kanpoko aukerak sortzea.

Honela adierazten du SIIseko lanak (2018): “Kirol praktikatik orain arte baztertuta egon diren gizataldeak erakartzeko orduan, beharrezkoa da kirolarekin lotutako erakundeetan kultur aldaketa bat egitea, gero eta dibertsifikatuagoa den eta denbora luzez hegemonikoa izan den lehia-izaerari nahitaez lotuta egon behar ez duen kirol baten alde egitea, berez, funtsezkoa izanik”.

7- Normalizazioa versus espezifikotasuna

Ekintza normalizatu edo orokorretan geratzeko ondorio negatibo batzuk sorrarazten ditu eta ekintza espezifikoak edo segregatuak eskaintzeko beste batzuk. Ondorioz, ezin da esan bata bestea baino egokiagoa denik. Eskaintza normalizaturako sarbidea eta parte-hartzea bermatzea litzateke egokiena, baina, horretarako, eskaintza hori eraldatu edo sortu beharko litzateke egoera kalteberan dauden gizataldeen premiak aintzat hartuta eta inplementatuta. Hala ere, maiz, behar horiek inplementatu gabe, eskaintza normalizatuan txertatzea edota espezifikotik normalizatura azkar batean igarotzea eskatu ohi dugu, eta hori ez da zilegi izaten. Azkenik, berritzeak eta sortzailea izateak ere garrantzia handia hartzen du esku-hartze mota hauek diseinatu eta garatzerakoan, bai edukietan bai lankidetzan moduetan.

SIISeko agiriaren (2018) arabera: “Hainbat azterketak frogatu dutenez, gizatalde jakin batzuetan jarduera fisikoa sustatzera espezifikoki zuzendutako esku hartzeak oso korapilatsuak izaten dira eta onurek ez dute luzaro irausten. Beste muturrean, berriz, literaturak erakusten du, ezen, ekintza generiko batzuek, nahiz eta berariazko osagairik gabeak izan, parte hartzearen aldetik oso emaitza gorabeheratsuak lortzen dituztela eta, beraz, aldez aurretik bazeuden ezberdintasunetan sakondu egiten dutela, bazterketa-faktoreak aurretiaz ez hartzeagatik kontuan”.

Eta honela borobiltzen du bien arteko hautua (SIIS, 2018): “Labur esanda, bazterketa egoeran dauden gizataldeei zuzendutako esku hartzeak, ahal den neurrian behintzat, jadanik badauden jarduera orokorretara sartzeko bidea erraztu beharko liekete gizatalde hauei, berariazko esku hartzerik antolatu gabe; baina hori bakarrik egin daiteke esku hartzeak aldatu edo egokitu egiten badira, gizatalde horien premia bereziei erantzun diezaieten”.

8- Talde multiprofesionalak eta espezializazioa

Zaugarritasun egoeran dauden gizataldeetan jarduera fisikoa sustatzeko ekimen arrakastatsuak izateko funtsezkoa da diziplina anitzeko lantalde profesional, aditu eta espezializatu bat izatea.

SIISeko azterlanaren (2018) arabera: “Beharrezkoa da mota honetako ekimenek izan ohi duten zama esperimental handia eta boluntarismo nabarmena ekiditea, baita baliabide tekniko gutxirekin ekimenak gauzatzen dituen langileria boluntarismoa ere. Garrantzitsua da hasieratik bertatik prestakuntza egokia duten lan talde bat izatea eta, diziplina anitzekoa bada, hainbat hobe. Prestakuntza eta esperientzia dauzkaten langileekin –soldatapekoak zein boluntarioak izan– erabiltzen diren programak eraginkorragoak direla frogaturik dago”.

9- Erakundeen arteko elkarlana

SIISeko txostenak (2018) honakoa egiaztatzen du Europako ekimen eraginkorrak kontuan izanda: “Europar egindako esperientziarik arrakastatsuenak lekuko, elkarlanak, lankidetzak eta babesleak funtsezkoak dira proiektua egoera ezagun batetik eta dauden baliabideetatik bideratu ahal izateko, eta gainera, denboran proiektuari eutsi ahal izateko. Printzipio honek bat egiten du integraltasunaren printzipioarekin, entitate edo administrazio bakoitzak hainbat lurralde mailatan beraien eskumen diren gaietan izan dezaketen inplikazioagatik: osasunean, hirigintzan, eskolan, gizarte zerbitzuetan, garraioan, irabazi-asmorik gabeko erakundeetan, e.a.”.

10- Esku-hartzearen jarraipena eta ebaluazioa

“Esku hartze eraginkorrak erdiesteko orduan, jarraipena eta ebaluazioa gako faktoreak dira biak, beraien mende baitago erabakiak egoki hartu ahal izatea. Prozesua baloratuz eta esku hartzea egokituz joateko aukera ematen dute biek; bata jarraipena egitea ahalbidetzen du, eta besteak emaitzak egiaztatzea jardueran zehar eta jarduera amaitu ondoren” (SIIS, 2018).

3.2. OINARRIZKO ESKU-HARTZEAK

Sozialki kalteberak diren gizataldeetan kirola sustatzeko oinarrizko esku-hartzeak

SIISeko ikerketan (2018) egindako literatura zientifikoaren eta esperientzien nazioarteko berrikuspenari esker, sozialki kalteberak diren gizataldeetan kirol jarduera sustatzera bereziki zuzenduriko esku-hartzeen katalogo bat detektatu da, jarraian zerrendatzen dena:

1- Jardueren kostua murriztea

Kalteberatasun egoeran dauden gizataldeei jarduera fisikoa sustatzeko esku-hartzeak eraginkorrak izan daitezen, ezinbestekoa da jardueren kostua arintzea, jaistea edota doan izatea. Hala nola, berariazko finantzaketa zuzentzea xede diren gizatalde horietara.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Jarduera Fisikoko eta Kirol Zerbitzuak atal honetan honako esku-hartzeak burutu edo garatu ditu: kirol klubei eta kirol elkarteei ematen dizkien dirulaguntzetan DSBEa (Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta) jasotzen duten familiei kuotak jaistea (% 75eko hobaria 15 kirol lizentziatik 1ean), Txuri-Urdin Jauregiko erabiltzaileei ere aukera bera bermatzea (DSBE jasotzaileei % 75eko hobaria), genero berdintasuna lortzeko finantzaketa zehatza emakumeei zuzendutako programetan (berariazko marketin sozialeko kanpaina, emakumeei zuzendutako kirol ekitaldien publizitate-babesa, *Emakumeok Mugimenduan* programaren pean hainbat doako ekintza eta udalei zuzendutako dirulaguntza ildo zehatza, Kirol-Orientazioko Zerbitzuetako doako aholkularitza, eta abar), jatorri anitzeko emakumeei zuzendutako esku-hartze pilotuak doan, beharrezko arropak doan (burkini eta bainujantziak, txanoak, biserak, zirak...).

SIISeko azterlanak (2018) esku-hartze eraginkor hori honela zehazten du: *“Egoera ekonomiko ahulean dauden pertsonen kasuan, gorputz jarduera sustatzeko orduan esku hartzerik ohikoenak diru oztopoak murriztea xede dutenak dira, gorputz jarduera puntualen kostua edota izen ematearen kuotak jaitsiz –edota baita doan eskainiz ere–. Dohaintzan emandako kirol arropak eta ekipamenduak sartuko lirakeke atal honen barruan”.*

2- Banakako arreta

Banakako arretaren ikuspegiak eraginkorrak izaten dira jarduera fisikoa norbanakoaren bizitzan txertatzen laguntzeko estrategia gisa, non norbanakoaren faktoreez gain, testuinguruko baldintzatzaileak eta baldintzatzaile sozialak kontuan hartzen diren. Adibidez, Gipuzkoako lurraldean zenbait udalerrietan dauden profesionalak Kirol-Orientazioko Zerbitzuetan (aurrerantzean, KOZ). 34 KOZ daude Gipuzkoako 23 udalerrietan. 2017az geroztik pixkanaka areagotzen joan dira, aldundiaren sustapenarekin (baliabide ekonomiko eta aholkularitza teknikoaren bidez).

SIISeko azterlanaren (2018) arabera: *“Gizabanakoen premia eta lehentasunen hasierako ebaluazioan oinarrituriko esku hartzeak dira eta, geroko fase batean, erabiltzailearengandik gertuenik dauden eta erabiltzailearengana egokituriko aukeren aholkularitzan oinarriturikoak.*

(...) jokabidea aldatzeko tekniken bitartez, eguneroko bizitzan jarduera fisikoa nola txertatu parte hartzaileei irakasten dietenak”.

3- Informazio kanpaina

Egoera zaurgarrian dauden pertsona edota gizataldeekin harremanetan jartzeko, ez da nahikoa zerbitzuaren ateak irekita daudela esatea, edo beraien parte hartzearen zain egotea. Ezinbesteko zereginak dira xede den gizataldearen bila joatea, harremanetarako kanal eraginkorra identifikatzea eta berariazko informazioa eskaintzea.

SIISeko agiriak (2018) honela dio: *“Jardueren hartzaile den publikoarengana iristea beti ez da erraza, eta bazterturik dauden pertsonen kasuan hori bereziki garrantzitsua da, gizatalde honek berez dituen gabeziengatik. Horregatik, proiektu bat diseinatzeko orduan, askotan modu berezi batez iritsi behar da hartzaileengana –elkarteen bidez, harreman pertsonalen bidez, jardueren kokaleku espezifikoaren bidez, bide informalak erabiliz, e.a”.*

4- Jarduera fisikoa familia-erantzukizunekin bateratzea

Jarduera fisikoa eta familia-erantzukizunak uztartzea politika eraginkorra da herritarrentzat oro har, eta are gehiago oztopo edo zailtasun handienak dituzten gizabanako edo kolektiboentzat (aitatasuna, amatasuna, ama bakarreko familiak, jatorri desberdineko

emakumeak...). Lana, etxeko lanak eta zaintza jarduera fisikoarekin uztartzea nahitaezkoa da bizitzako aldi desberdinetan. Horregatik, adibidez, esku-hartze pilotuetan eskola-orduetan kirol-jarduerak eskaini dira edo haurtzaindegi-zerbitzua ezarri da.

SIISeko txostenaren (2018) arabera: *“Pertsonak zaintzea eta kirol jarduera bateratu ezin izatea oztoporik handienetako bat izaten da gizatalde jakin batzuetan, esaterako, familia gurasobakar amadunen gizataldean. Kirol jarduera eta familia-erantzukizunak bateratzeko premia hau zenbait ekintzaren bitartez erraz daitezke, esaterako, kirol jardueretan haurtzaindegiak jarritz, jarduerak eskola ordutegiaren barruan planifikatuz, haurren jarduerak eta pertsona helduenak bat etorraziz”*.

5- Oinarrizko kirola sustatzeko neurriak

Jakina da partaidetzako kirola herritar orori zuzendutako kirola dela. Ondorioz, ibilbide horretako jarduera fisikoa edo kirola sustatzea garrantzitsua da, herritar guztiei zuzentzen zaienez, eragina handiagoa eta unibertsalagoa delako. Hortaz, eremu federatuko kirolak baino eragin handiagoa izan dezake edozein herritarrentzat delako, eta ez soilik abilezia motore altuak dituztenentzat. GFAko KZak horren inguruko hainbat programa sustatzen ditu: eskola kirola (hastapen jarduerak eta parte-hartze ibilbideko lehiaketak), kirol arloko dirulaguntzak parte hartzeko kirola sustatzeko, kirol ekitaldiak, emakumei zuzendutako ekintzak, eta abar. Bestalde, kaltebera egoeran dauden gizataldeei so eginez, abian jarri diren hiru esku-hartze pilotuetan bereziki lehenengo belaunaldiko jatorri anitzeko emakumeak hartu dira jomuga, eta horietan jarri da arreta programaren diseinu integralean, garapenean eta ebaluazioan.

SIISeko agiria (2018) honela jasotzen du kontu hori: *“Kirol gutxien egiten duten gizatalderik ahulenengana iristeko, oinarrizko kirola sustatzen duten neurri unibertsalak oso onak direla baieztatzen dute ikerketa ugariak. (...), besteak beste: kirol entitatei oro har eta kirola egiten hasteko jardueri bereziki diru laguntzak zuzentzea; kirolean gutxi ordezkatuta dauden gizataldeetan arreta jartzea, hau da: estatus sozioekonomiko baxua duten gizataldean, lehen eta bigarren belaunaldiko etorkinen taldean, emakumeen taldean, e.a”*.

6- Egokituriko kirol jardueren programak

Eskaintza normalizatuan parte hartu ezin dutenei zuzentzen zaizkien jarduera fisiko espezifikoak dira; hau da, adina, generoa, aniztasun funtzionala, genero identitate edota sexu-orientazioa, jatorri-aniztasuna... aintzat hartuta sortzen diren jarduera espezifiko egokituak, hala nola Gipuzkoako eskola kirolean desgaitasun handia duten ikasleei eskainitako Eskola Kirol Egokitu (EKE delakoa) programaren kirol jarduerak, edota *Hobesegi* programa delakoa (Hegalak Fundazioaren bidez Donostian). Azken hori desgaitasun edo mendekotasun handiko eta lehentasunez, egoera ekonomiko baxuko herritarrei eskaintzen zaio. Bestalde, adinekoei eskainitako hainbat jarduera ere barneratu daitezke multzo honetan: *Tipi-Tapa* deituriko oinezko ibilaldiak, non beste herritarrek ere parte hartu dezaketen; Koordinazioa-Oreka-Indarra (KOI) lantzeko taldeak, adinekoei zuzendutako jarduera fisikoko programak, emakumei soilik zuzendutakoak, edota estatuko beste lekuetan dauden gay eta lesbianen kirol klubetako eskaintza, esaterako.

SIISeko azterlanak (2008) honela deskribatzen ditu jarduera horiek: *“Adineko edo/eta dibertsitate funtzionala duten pertsonen premiak kontuan hartuta bereziki diseinatutako kirol jarduera lantzeko programak dira, zeinetan gorputz eskakizunak eta segurtasun neurriak azpimarratzen diren. Hemen ere prebentzio-izaera duten ekintzak sartzen dira gehienbat, zahartzearekin loturik dauden arriskuak ekidin nahian: demenzia, erorikoak, hauskortasunak, e.a. Talde honen barruan zenbait esperientzia arrakastatsu sartuko lirake, besteak beste, (...) gizarteratzea eta zahartze aktiboa lantzen dituen 70 urtetik gorako pertsonen zuzenduta dagoen Vivifrail programa”*.

7- Espazio publikoen erabilgarritasuna

Esku-hartze hau arrakastatsua izan da, beste gauza batzuen artean, aire zabalean dauden kirol guneak eskuragarri eta hurbil daudelako, erabiltzeko kuotarik gabe. Multzo horretan sar daitezke kirolestatik at kudeatu arren, jarduera fisikoa egitera bultzatzen dituzten aukerak ere: garraio aktiboa, bidegorriak eta naturaguneak.

SIISeko txostenak (2018) gai hau honela jasotzen du: *“Esku hartze hauen helburua egoera ahuleko inguruetan gorputz jarduera sustatzea da, gertu eta eskura dauden espazio publikoen erabilgarritasuna hobetuz: ikastetxeetako instalazioak eskola-ordutegitik kanpo gehiago erabiltzea, jolas guneak eta parkeak zabaltzea, footing egiteko ibilbideak egitea, gimnasia egiteko makinak edo beste edozein kirol instalazio egurats zabalean jartzea, adibidez: skatodromoak, saskibaloia kantxak, tenis zelaiak, futbolzelaiak, BMXerako pistak, eskalatze hormak, e.a., erabilera librekoak eta doakoak denak. (...) besteak beste, nabarmendu behar dira egurats zabaleko inguruneen garapena, kirolarekin nahitaez lotuta egon behar ez duten jarduera fisikoak egiteko; esaterako, garraio-baliabide aktiboak sustatu, bidegorriak egin eta lorezaintza jarduerak edo izadia zaintzeko jarduerak bultzatu”*.

8- Erreferentziazko materialen prestaketa

Erreferentziazko materialen prestaketa eta hedapena lagungarriak dira egoera sozioekonomiko ahulagoan dauden gizataldeen kirol sarbidea eta praktika sustatzeko esku-hartzeak ezartzeko. Horregatik, Foru Aldundiak berriazko txosten eta gida hau egitea erabaki zuen, esku-hartze pilotuetako eragileen kolaborazioarekin. Kirol eremuko eragileei eta beste eremuetako eragileei baliagarria izateko asmoz eratu da: gizatalde horiei begirada irekitzeaz gain, begirunea hobetzeko eta esku-hartzeak asmatzeko, sortzeko, garatzeko eta ebaluatzeko lagundu dezan.

Adibide gisa, estatu mailan Consejo Superior de Deportes (CSD) eta Consejo COLEF erakundeek eginikoa dugu (2020), LGTBIQ+ pertsonak kirol eremuaren parte izateko eragileei zuzendutako gomendioekin. Eta, lurralde mailan, Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioak egindako gida (2022) dugu, eskola adinean desgaitasuna dutenen inklusioa lortzea errazteko gomendioekin.

SIISeko txostenak (2018) zera azaltzen du: *“Premia bereziak dituzten pertsonen onarpen soziala (gutxiengoak, LGBTI, generoa...) sustatuko duten tresnak –adibidez, **gidaliburuak**– sortzea”*.

9- Mentoretza-programak/parekoen inplikazioa

Mentoretzaren bidez, parekotzat jotzen den gizatalde horretako pertsonak garrantzia hartzen du egitasmoan, zubi-lanak egin ditzake antolatzaile eta xede den gizataldearen artean, eta pertsona horri leku esanguratsu bat ematen zaio gauzatzen ari den esku-hartzean. Donostian Haurralde Fundazioarekin batera egindako esku-hartze pilotuan, pareko izendatutako arabiar emakume batek rol hori bete du: arabiar emakumeekin harremanak errazte aldera interprete lanak egin ditu, edukiak argiago azaltzeko eta, nola ez, berari programan rol garrantzitsua emateko.

SIISeko txostenak (2018) honela definitzen du: *“Helburuko gizataldea tutore edo animatzaile modura parte hartzea bultzatzea dute ardatz mentoretza-programa hauek. Alde batetik, parekoen inplikazioa gomendagarria da, erabiltzaileek haiek bezalako norbaitek bere kirol helburua erdiets dezakeela ikusten dutelako eta, beste alde batetik, mentore jarduten duten pertsonen gizartean eta lan munduan sartzen lagun diezaieketen onura pertsonalak edo trebetasunak eskuratzen dituztelako”*.

10- Ekintza positiboa eta genero-baldintzatzaileak


Generoa eta jatorri aniztasuna elkarrekin jartzean, interseksionalitatea aintzat hartuta, hainbat esku-hartze sustatzailek berebiziko garrantzia hartzen dute, bai eta ekintza positibo lagungarriak inplementatzeak ere.

SIISeko agiriak (2018) honela azaldu eta zerrendatzen ditu jatorri anitzeko emakumeetan kontuan hartu beharreko baldintzatzaileak eta ezarri beharreko esku-hartze lagungarriak jardura fisikoa sustatzerakoan: *“Komunitate jakin batzuetan, gizonezkoekiko harremanak zein gorputzaren esposizioa mugatzen duten erlijio edo kultur kodeak egon daitezke emakumeentzat. (...) gomendatzen da:*

- Kirol jarduerak ezagunak zaizkien instalazioetan egitea –kultur edo erlijio zentroetan–. (...) leku hauek seguruak begitantzen zaizkie bai erabiltzaileei bai beraiei inguruneke pertsonen.

- Emakume langileak kontratatzea: entrenatzaileak, begiraleak, e.a.

- Emakumeak kirol jantziekin edo bainujantziarekin jantzita ezein gizonek –mantentze lanetako langileak, kirol instalazioetako erabiltzaileak– ikus ditzan saihestea”.



4. JATORRI ANITZEKO EMAKUMEEN ONGIZATE ETA GIZARTE-INKLUSIOA JARDUERA FISIKO EDOTA KIROLAREN BIDEZ SUSTATZEKO ESKU-HARTZE SUSTATZAILEEN BERARIAZKO GIDA

-Generoa, jatorri aniztasuna eta erlijioa aintzat-

“Faktore sozioekonomiko, soziokultural, eta erlijio-sinesmenak aintzat”

IKUSPEGI INTEGRALA/HOLISTIKOA eta MALGUTASUNEZ BERAIEEN BEHAR eta PREMIETARA EGOKITU

- 1- Helburu nagusiak: ONGIZATEA eta GIZARTE-INKLUSIOA sustatzea izatea. Aktibotasuna bultzatuz, ongizatean eragitea: osasun fisiko, mental edota emozionalean, gizarte-harremanetan fokua (kapital sozialaren garrantzia). Jarduera fisikoa edota kirola (JFK, aurrerantzean) tresna da ongizate orokorrerako eta komunitatean gizarte-inklusionarako, non aintzat hartzen diren beraien lehenengo beharrak (etxebizitza, enplegua, hizkuntza, familia...)

KULTURARTEKONTASUN IKUSPEGIAREN ALDEKO APOSTUA

- 2- Kulturartekotasun ikuspegiaren bitartez diseinatzea eta gauzatzea esku-hartzea. Hau da, jatorri anitzeko edota kultur testuingu ezberdinetako emakumeen arteko JFK egiteko guneak sortzea, elkar ezagutu eta elkar eragiteko aukera ahalbidetuz.
- 3- JFK teknikariak aniztasun edota migrazio teknikariekin elkarlanean aritzeak errazten du, edota izan ezean, berdintasun edota gizarte zerbitzuekin.

AHALDUNTZE ETA KUDEAKETA PARTE-HARTZAILEA

- 4- Jatorri anitzeko pertsonen erakundeekin kolaborazioa egotea. Emakume horietara hurbiltzeko eta akonpañamendua egiteko. Kolaborazio publiko-pribatua bultzatzea.
- 5- Komunitateko jatorri anitzeko emakumez baliatzea erreferente-mentore izan daitezen.

IRISGARRITASUN SOZIO-EKONOMIKOA

- 6- Doako zerbitzua izatea edota kuota sinbolikoak jartzea.

SOZIO-KULTURALA (generoa barne)

- 7- Lana, familia, norberaren kontuak eta jarduera fisikoa uztartzea kontuan izatea. Ondorioz, haurrak zaintzan edota irakaskuntza orduetan daudenean izatea JFK eskaintza, edota haurtzaindegi zerbitzua ezartzea.

SOZIO-KULTURALA eta ERLIJIOA (generoa barne)

8- Ereljio sinesmenak errespetatzea:

- a. Janzkera errespetatzea, erlijioa aintzat izanik: zapia buruan, gorputza estaltzeko beharra onartzea (igerilekuan burkinia ere).
- b. Ramadan garaia aintzat izatea (noiz den ezagutzea), barauldiaren ezaugarriak ezagutzea eta baraualdian zein dauden identifikatzea: saio arinak intentsitatea jaitsiz, aldi baterako geldialdiak, irregulartasuna onartzea. (Igeriketan, adibidez, ur saioak moldatzea, nahigabeko ur tragoak murriztu edota sahiesteko)
- c. Aldageletan eta dutxetan intimitaterako aukerak ezartzea.

9- Gorputz-hezkuntzan duten kultura ezagutzea eta burujabetza abiapuntua errespetatzea, hortik abiatuz.

10- Jatorri-anitzeko taldea izatea (bertakoak ere egotea sustatu).

11- Emakume taldea izatea.

12- Irakaskuntzaren arduraduna/hezitzailea emakumea izatea.

IRISGARRITASUNA (fisikoa)

13- Irisgarritasuna ahalbidetzea: eskaintza hurbil egotea. Ingurune segurua izatea edota seguru gisa hautematea.

IRISGARRITASUNA (hizkuntza, kanal egokia, harremanak bilatzea)

14- Informazio kanpainak egiteko hizkuntza aniztasunaren beharraz jabetzea (euskara, gaztelania, arabiera, ingelesa,...), bi hizkuntza ofizialak bermatu eta euskara sustatu arren. Bestalde, alfabetatu gabeak ere izan daitezkeela ohartzea (ahoz edota audioak). Harremanak bilatzea beraiekin, elkar hobeto ezagutzeko. Ahoz ahokoak ere funtzionatzen du informazioa hedatzen joateko. Whatsap taldeak ere baliagarriak dira.

SENTSIBILIZATU, TREBATU eta INFORMATU-ORIENTATU

15- Aniztasunean kirol esparruko pertsonen sentsibilizazioa eta formakuntza burutzea (kirol teknikari, kudeatzaile, monitore, sorosle, harrerako pertsona...). Giza-eskubideetarako eta kultura-aniztasunerako begirada irekitzea.

16- Kultura-aniztasunaren balioetan herritarrak hezte, sentsibilizatzea eta diskriminazio egoerei aurre hartzea edota prebenitzea (esaterako, arrazakeria, islamofobia, eta abar).

17- Kultur testuinguru ezberdinetako emakumeen sentsibilizazioa JFreekiko, osasunerako eta gizarte harremanetarako tresna gisa. Osasun zerbitzuetako figuren eta gizarte-zerbitzuetako langileen aholku eta gomendioen garrantzia barneratuagoa dute.

18- Jatorri anitzeko emakumeen erreferenteen ikusgarritasuna sustatzea, bai beraien artean animatzeko bai bertakoen begirunea hobetzeko.

19- Kirol Orientazio Zerbitzuekin (KOZ) loturak sustatzea. Edota izan ezean, JFKko tokiko talde sustatzailearekin. Osasuna, hezkuntza eta komunitatearekiko aukerak zabaltzea.

TOKIKO POLITIKAK

20- ESKAINTZA INKLUSIBOA (Kulturartekoa edo Sartu deiturikoa) lehenetsi, baldin eta eskaintza egokitzen den beraien premietara, bestela, ESKAINTZA ESPEZIFIKOA (Kultura-aniztasuna edo Segi deiturikoa), edota BIETATIK.

21- Politikak diseinatzea eta gauzatzea kulturarteko ikuspegitik, bereziki. Finantzaketa egotea (publikoa behintzat). Kirol eremuko egiturazko arrazismoan ere begirada jartzea, berau identifikatuz eta horri aurre egiteko mekanismoak ezarriz.

22- Legeria edota araudia argitu eta malgutu (kirol instalazioen erabilera araudiak, adibidez).

- DEFINIZIOAK:
- Kulturartekoa edo Interkulturala: espazio geografiko edo sozial bera partekatzen duten kultura desberdinen artean sortzen diren elkarrekintza eta harremanen multzoa da, kulturen artean balioak, jokabideak, ohiturak eta ikuskerak trukatu. Korrante eta mugimendu soziala da, kulturen arteko harreman positiboak, menpekotasunik gabe eta berdintasunean daudenean.
- Kultura-aniztasuna edo Multikulturala. espazio geografiko eta sozial berdina partekatzen dutenean, haietako bakoitzak bere kultura, ohitura eta balio propioak atxikiz, besteeiko harreman, elkartruke edo akulturaziorik gabe, eta aldi berean bizikidetzan eta berdintasunean, haien artean menpekotasunik sortu gabe (hala ez balitz, segregazio, asimilazioa edo eskusioa sortuko lirakeke).
Multikulturalismoa espazio berean kultura anitz elkarrekin egotea baino ez den bitartean, interkulturalitateak horien arteko harreman positiboak jasotzen ditu.



ERABILITAKO ITURRI NAGUSIAK:

- Nazio Batuen Erakundea (NBE, 1948). Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala.
- Europako Kontseilua. 2021ean berrikusitako Europako Kirol Gutuna.
- Munduko Osasun Erakundea (OME, 2018). Jarduera fisikoari buruzko ekintza plan globala 2018-2030: Pertsona aktiboak Mundu osasuntsu baterako.
- Munduko Osasun Erakundea (MOE, 2021). Munduko Osasun Erakundearen gidalerroak jarduera fisikoari eta sedentarismoari buruz.
- Eusko Jaurlaritza (EJ). 2/2023 LEGEA, martxoaren 30ekoa, Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolarena (GAO, 2023ko apirilak 18).
- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duena.
- Eusko Jaurlaritza (EJ) eta Kirol Arloko Iritzi Taldea (KAIT). Euskadiko Udal Kirol Behatokia (2020).
- Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokia (2022 eta 2023). Datuak eta barometroa.
- Gipuzkoako Foru Aldundia (GFA). Gipuzkoako Foru Aldundiko 2024-2027 Plan Estrategikoa.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko (GFA) Giza Eskubideak eta Kultura Demokratikoko Zuzendaritza Nagusia (2022). II. Aniztasuneko Foru Plana - Eskubide Berdintasuna.
- 2/2015 Foru Araua, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako.
- GFA Partaidetza (2022). Ekintza Komunitarioko Markoa: GFAren eta lurraldeko udalen arteko marko kontzeptual, estrategiko eta operatiboa.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Jarduera Fisikoko eta Kirolerako Zerbitzua (GFA JFKZ, 2018). Gipuzkoako desgaitasunari arreta erredua.
- J. Aldaz Arregi (EHU). Gipuzkoa EkitAktiboa. Ikerketa-Aktibatzailearen emaitzak
- GFA Soziometroa (Gizaker inkestak, 2023).
- GFA JFKZ eta EHU (GikaFit, 2021). Gipuzkoar emakumeen aktibotasuna neurtzeko ikerketaren infografia.
- GFA JFKZ eta EHU (GikaFit, 2023-2024). Gipuzkoan eskola-umeen kirol ohiturak.
- SIIS (2018): Gizarte eta ekonomia bazterketa egoeran dauden pertsonen artean kirola sustatzea.
- SIIS (2022). Gipuzkoako pobrezia eta gizarte-bazterketari buruzko ikerketak.
- O. Zunzunegi Etxeberria (2020). Emakume musulmanen gizarte-inklusioa jarduera fisikoaren bidez. Master Bukaerako Lana. Iturri nagusiak:
 - o Consejo Superior de Deportes (CSD, 2015). Deporte, actividad física e inserción social: *Una guía para la intervención social a través de las actividades deportivas*. Madrid.
 - o Dagkas, S, Benn T. (2006). *Young Muslim women's experiences of Islam and physical education in Greece and Britain: a comparative study*, Sport, Education and Society, 11:1, 21-38, DOI: 10.1080/13573320500255056. University of Birmingham, UK.
 - o Dar-dar produkzioak gizarte ekimenezko kooperatiba (2013, 2014): *Aniztasunaren bidetik integrazioa lantzen*. Legorreta, Gipuzkoa. Nissaa Asaada Emakume Elkarte (2015-2020). Egitaraua, Legorreta, Gipuzkoa.

- o García Ferrando, M. (2006) *Posmodernidad y Deporte: Entre la individualización y la masificación. Encuesta hábitos deportivos de los españoles 2005*. Madrid: CIS/Siglo XXI.
- o Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzua. Mugiment Gipuzkoa (2018), Donostia. <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/kirolak/zer-egiten-dugu/mugiment-gipuzkoa>
- o INE, Ikuspegi: Inmigrazioaren Euskal Behatokia (2019). Azterketa kuantitatiboa. EHU eta Eusko Jaurlaritza: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Azterketa kualitatiboa: Barometroa, *Jatorri atzerritarra duten biztanleen pertzepzioak eta jarrerak*. EHU eta Eusko Jaurlaritza: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.
- o Kennett, C. (2005) *Sport, immigration and multiculturalism, a conceptual analysis*. Universitat Autònoma de Barcelona, Barcelona.
- o Kirola denontzat Europako Gutuna (1975) eta Kirolaren Europako Gutuna (1992).
- o Molina, F. (2009): Deporte, interculturalidad y calidad de vida. Anduli, Revista Andaluza de Ciencias Sociales, p. 165-173. Universidad de Lleida, Lleida.
- o Nasri, K. (2014). *Actitudes y hábitos deportivos de las mujeres magrebíes musulmanas en Cataluña: un estudio de casos*. Universitat de Barcelona, Barcelona.
- o Nieva, C. (2015). *La toma de decisiones del profesorado en educación física de primaria en relación con la inclusión del alumnado femenino inmigrante*. Universitat de Barcelona, Barcelona.
- o Unesco (2015). Declaración de Incheon: *Educación 2030: Hacia una educación inclusiva y equitativa de calidad y un aprendizaje a lo largo de la vida para todos*. Incheon, República de Corea.
- o Santos, A. (2012). *Actividad física y vivencias corporales de las mujeres magrebíes en España*. Universidad de Valencia, Valencia.
- o Santos, A., Balibrea, E. et al. (2004) *Mujeres en forma contra la exclusión*. Valencia: Dirección General de la Mujer, Generalitat Valenciana.
- o Sport England (2020). *Sport for all? Why ethnicity and culture matters in sport and physical activity*. Source: Active Lives Children & Young People survey 2017-19 (two years combined), England.
- GFA JFKZ (Murua): JFKren esku-hartzeetarako lehentasunezko taldeak: 0-8 urte bitarteko haurrak, familia-bizitza eta lan-bizitza jardura fisikoarekin uztartzea - 25-44 urte bitarteko pertsonak, eta adineko pertsonak - 65 urtetik gorakoak.
- GFA JFKZ (2024): Kirol arloko dirulaguntzak. Oinarri arautzaile orokorrak, espezifikak eta 2024ko deialdia onestea. (GAO 2024ko apirilak 26)
- Marlier M, Van Dyck D, Cardon G, De Bourdeaudhuij I, Babiak K, Willem A (2015) Interrelation of Sport Participation, Physical Activity, Social Capital and Mental Health in Disadvantaged Communities: A SEM- Analysis.
- Holdsworth, M., Nicolaou, M., Langøien, L. J., Osei-Kwasi, H. A., Chastin, S. F., Stok, F. M., ... & Stronks, K. (2017): Developing a systems-based framework of the factors influencing dietary and physical activity behaviours in ethnic minority populations living in Europe-a DEDIPAC study. international journal of behavioral nutrition and physical activity, 14, 1-15.
- Women in Sport & Sport=Equals (2019). Insight pack muslim women and girls
- Dr Irfan Khawaja, Birmingham City University (2024). Ramadan Guidance for Schools and Educational Settings: Physical Education and Physical Activity
- Sporting Cities Opposing Racism in Europe (Score, 2024): Manual básico para luchar contra el racismo y la discriminación racial en el ámbito deportivo a nivel local.

ERANSKINAK:

PRINTZPIOAK ETA ESKU-HARTZEAK TEORITIK MODU PRAKTIKORA: TOKIKO ESPERIENTZIA PILOTUETAN EZARRITAKOAK

1. ERANSKINA

OINARRIZKO PRINTZPIOAK	DONOSTIAN Gipuzkoako Foru Aldundiko Jarduera Fisikoko eta Kiroltako Zerbitzua (aurrerantzean, GFA JFKZ eta HAURRALDE)	ORDIZIAN (GFA JFKZ eta ORDIZIAKO UDALA)
1- Ikuspegi komunitarioa	- Komunitateko erakunde publiko eta pribatuko elkarlana, non emakume hauek bertako kide diren - Kirol Etxearen erabilera. Aldundiari bisita eta kulturarteko lanaldi eta kafea - Hobetu daiteke	- Komunitateko erakunde publiko eta pribatuko elkarlana, non emakume hauek Ordizia Koloreko kide diren. Bertako emakumeek ere parte hartu dute. - Majori kiroldegira jauzia, gune komunitarioa erabiliz. - Hobekuntza: zubiak eraiki kirol eskaintzako beste ekintzetara.
2- Irisgarritasunaren baldintzak erraztea	- Doakoa	- Doakoa
3- Arauak malguak izatea eta pertsonen eta gizataldeen premietara egokitzea	- Ezaugarri soziokulturala, sozioekonomikoa, erlijioa eta genero ikuspegia txertatuta	- Ezaugarri soziokulturala, sozioekonomikoa, erlijioa eta genero ikuspegia txertatuta
4- Ahalduntzea eta kudeaketa parte hartzailea	- JFKean ahalduntze-mailatik abiatu - Kide diren erakunde parte-hartzaileekin batera: Haurralde fundazioa eta Mestiza Elkartea	- JFKean ahalduntze-mailatik abiatu - Kide diren erakunde parte-hartzaileekin batera: Ordizia Kolore Taldea
5- Motibazioa: sentsibilizazioa, informazioa eta harreman iraunkorrak	- Haurralde eta Mestiza bidez, emakume arabiar itzultzaile bidez - Formakuntzarik ez, baina barne-bilerak saio edo hitzaldiak emango zituztenekin: Askora, adibidez	- Ordiziako aniztasun kudeatzaile figuraren bidez - Neurri zuzentzailea: EJ Biltzen aholkularitza bidez kultura-aniztasuneko egun baten trebakuntza teoriko eta praktikoa
6- Zeharkakotasuna eta integritasuna	- Aldundian KZ eta Giza Eskubideak eta Kultura Demokratikoaren Zuzendaritza. - Udalaren parte-hartzea izan zitekeen hobetzeko.	- Aldundian KZ eta Giza Eskubideak eta Kultura Demokratikoaren Zuzendaritza. - Udalean kirol teknikari eta kudeatzailea eta aniztasun arduraduna
7- Normalizazioa versus espezifikotasuna	- Espezifikoa	- Normalizazioa jauzia. Eskaintza premietara egokitu, baina kirolgune normalizatuan
8- Talde multiprofesionalak eta espezializazioa	- Kirola eta kultura-aniztasuna edo migrazioa	- Kirola eta kultura-aniztasuna edo migrazioa
9- Erakundeen arteko elkarlana	- Publiko eta pribatua. Kirola eta Aniztasuna edo migrazioa	- Publiko eta pribatua. Kirola eta Aniztasuna edo migrazioa
10- Esku-hartzearen jarraipena eta ebaluazioa	- Ebaluazio kuantitatibo (galdetegia) eta kualitatiboa (elkarriketak taldean)	- Ebaluazio kuantitatibo (galdetegia) eta kualitatiboa (elkarriketak taldean)

2. ERANSKINA

OINARRIZKO ESKU-HARTZEAK	DONOSTIAN (GFA JFKZ+HAURRALDE)	ORDIZIAN (GFA JFKZ eta UDALA)
1. Jardueren kostua murriztea	- Doakoa - Merchandising eman: bisera, sira (GFA JFKZ)	- Doakoa - Material erosketak: bainujantzia eta burkinia (GFA JFKZ) - Merchandising eman: bainu-txanoa (GFA JFKZ)
2. Banakako arreta	- Erabiltzaileei pasa zitzaizen informazioa Donostia eta Oarsoaldeko KOZena	
3. Informazio kanpainak	- Zuzenekoa, elkarte edo erakunde pribatuen bidez - Komunikazioa erakunde publikotik: kartela, prentsa-oharra, sare sozialak	- Zuzenekoa, elkarte edota erakunde pribatuen bidez - Erakundeetako komunikazioa: prentsaurrekoa, sare sozialak, ahoz ahozkoak (EPA)
4. Jarduera fisikoa familia-erantzukizunekin uztartzea	- Haurtzaindegi zerbitzua	- Eskola ordutegian (15:00etatik 16:00etara)
5. Oinarrizko kirola sustatzeko neurriak	- JF oro har: zoru pelbikoa, elikadura eta ibilketa nordikoaren bariante errazagoa	- Uretako familiarizazioa edo igeriketa saioak
6. Egokituriko kirol jardueren programak	- Bai	- Mistoa. Eskaintza ez denez premietara egokitu, gune normalizatuan sortu da egokiturikoa
7. Espazio publikoen erabilgarritasuna	- Kirol Etxea eta ingurunea aire librean	- Majori kiroldegia eta igerilekua
8. Erreferentziazko materialen prestaketa	- Txostena eta gida hau (hobe aurretik izan balitz)	- Txostena eta gida hau
9. Mentoretza-programak/parekoen inplikazioa	- Emakume arabiar bat itzulpenak eta interpretazioak egin zituen arabierara / musulman eta bertakoen arteko bitartekari lanak - Europar emakume batek erritmo musikatuko saioaren zati bat eskaini zuen	- Ez
10. Ekintza positiboa eta genero-baldintzatzaileak	- Anoetako Kirol etxea gizonen biziaren kanpo - Emakumeen taldea - Saio/hitzaldiaren arduraduna emakumea / GFA JFKZtik emakumeak/ Haurraldetik emakumeak ere/ Askorarik mistoa (Emakumea eta gizona, baina hitzaldia mugimendurik gabekoa zelako) - Gorputza estalita joateko baimena, beloa eramateko baimena	-Majori kiroldegia: sarrera, aldagelak, bai kolektiboa bai intimitaterako aukera, eta igerileku txikia -Emakumeen taldea -Saio/igeriketa saioen monitoreak emakumeak/ GFA JFKZtik emakumeak/ Udaleko kiroleratik gizonen biziaren/ Kultura-aniztasun-arduraduna emakumeak/ Sorosleak gizonen biziaren -Gorputza estalita joateko baimena burkiniarekin, beloa eramateko baimena

3. ERANSKINA

BERARIAZKO GIDA	DONOSTIAN (GFA JFKZ+HAURRALDE)	ORDIZIAN (GFA JFKZ + UDALA)
1) IKUSPEGI INTEGRALA/HOLISTIKOA eta MALGUTASUNEZ BERAIEEN BEHAR eta PREMIETARA EGOKITZEA.	- Ezaugarri soziokulturala, sozioekonomikoa, erlijioa eta genero ikuspegia txertatuta	- Ezaugarri soziokulturala, sozioekonomikoa, erlijioa eta genero ikuspegia txertatuta
2) KULTURARTEKOTASUN IKUSPEGIA.	- Kulturartekotasun eta multikulturalismo artekoa, mistoa	- Kulturartekotasuna
3) AHALDUNTZE ETA KUDEAKETA PARTE-HARTZAILEA.	- JFKean ahalduntze-mailatik abiatu - Kide diren erakunde parte-hartzaileekin batera: Haurralde fundazioa eta Mestiza Elkartea	- JFKean ahalduntze-mailatik abiatu - Kide diren erakunde parte-hartzaileekin batera: Ordizia Kolore Taldea
4) IRISGARRITASUN SOZIO-EKONOMIKOA.	- Doakoa - Merchandising eman: bisera, sira (GFA JFKZ)	- Doakoa - Material erosketa: bainujantzia eta burkinia (GFA JFKZ) - Merchandising eman: bainu-txanoa (GFA JFKZ)
5) SOZIOKULTURALA (generoa barne).	- Haurtzaindegi zerbitzua larunbat goizetan	- Eskola ordutegian (15:00etatik 16:00etara) astelehen eta ostiralean, talde bana
6) SOZIOKULTURALA eta ERLIJIOA (generoa barne)	- Anoetako Kirol Etxea (Donostia) gizonezkoen begiradetatik kanpo - Emakumeen taldea - Saio/hitzaldiaren arduraduna emakumea / GFA JFKZtik emakumeak/ Haurraldetik emakumeak ere/ Askorarik mistoa (Emakumea eta gizonezkoa, baina hitzaldia mugimendurik gabekoa zelako) - Gorputza estalita joateko baimena, beloa eramateko baimena	- Majori udal kiroldegia: sarrera, aldagelak, bai kolektiboa bai intimitaterako aukera, eta igerileku txikia - Emakumeen taldea - Saio/igeriketa saioen monitorea emakumea/ GFA JFKZtik emakumeak/ Udaleko kiroldegitik gizonezkoa / Kultura-aniztasun arduraduna emakumea / Harrerakoak emakumeak / Sorosleak gizonezkoak - Gorputza estalita joateko baimena burkiniarekin, beloa eramateko baimena - Ramadan garaian irregularitasunaren onarpena edo saio arinak
7) IRISGARRITASUNA (fisikoa)	- Anoetako Kirol Etxea- Donostia (autobusa, topoa, edo oinez). Segurua	- Majori udal kiroldegia, oinez. Segurua
8) IRISGARRITASUNA (hizkuntza, kanal egokia, harremanak bilatzea)	- Euskara, gaztelania, arabiera eta itzultzailea. Harreman pertsonalak	- Euskara eta gaztelania. Ahoz ahokoak, harreman pertsonalak. Whatsapp taldeak (audioak ere).
9) SENTSIBILIZATU, TREBATU eta INFORMATU-ORIENTATU	- Haurralde eta Mestiza bidez, emakume arabiar itzultzailearen bidez - Formakuntzarik ez, baina barne-bilerak egin ziren saio edo hitzaldiak emango zituztenekin: Askora erakundea, adibidez.	- Ordiziako aniztasun kudeatzaile figuraren bidez - Neurri zuzentzailea: EJ Biltzen aholkularitzaren eskutik, egun bateko trebakuntza teoriko eta praktikoa kultura-aniztasunari buruz
10) TOKIKO POLITIKAK	- Egokitua - Finantzaketa publikoa (GFA JFKZ)	- Inklusiboa edo mistoa - Finantzaketa publikoa (GFA JFKZ eta Ordiziako Udala) - Araudiak eta JFK kirol eskaintza aztertzen iraunkorra bilakatzeko (Majoriko erabilera araudia, JFK eskaintzan txertatzea, ordenantza fiskalak...)

MARTIN ZURE ONGIZATEA GARRAN



HAR EZAZU PARTE EMAKUME ETA KIROLARI BURUZKO KULTURARTEKO ZIKLOAN

EGITARAUA

Maiatzak 15, larunbata	Maiatzak 20, larunbata	Maiatzak 27, larunbata
Zoru pelbikoa eta arriketa fisikoak.	Power walk.	Mugimenduaren kontzientzia. Elkadura: bihi-esperientzia eta hamaketako osasungarria.

HELBURUAK

- Integrazio sareak indartzen.
- Elkartasuna sustatzea.
- Norberaren autonomia sendotzea.
- Bizimodu osasungarria.

DOAKO HURTZAINDEGI ZERBITZUA



Ezkerreko ikurrak: Euzko Lehen Mailako Kirol Etxea



Doako izen-ematea

945 387 163

eng@kulturekidefundazioa.org

Baldintza bakarra

3 Jardueretan parte hartzea

PARTIDAKIDETZA

PARTIDAKIDETZA

PARTIDAKIDETZA












شاركي بالدورة الثقافية الرياضية بين النساء

برنامج

13 مايو ، السبت	20 مايو ، السبت	27 مايو ، السبت
قاع الحوض ومعارسة الرياضة البدنية.	قوة المشي	الوعي بالحرقة التفذية: تجربة حياتية ووجبة غذاء صحي.

الأهداف

- * تقوية روابط التكامل.
- * تعزيز التضامن.
- * تعزيز الاستقلالية
- * تعزيز أسلوب حياة صحي.

تسجيل مجاني

☎ 943 227 142

📧 reg@nswr.culturefondation.org

الشرط الوحيد

🔥 المشاركة في جميع الأنشطة الثلاثة

خدمة رعاية الأطفال المجانبة



Cultura Association
Andorra





مدير



بشرية



asecra



الضمان الاجتماعي



البيئة



الاقتصاد



الداخلية



العدالة



الزراعة

5. ERANSKINA



**EMAKUME MIGRANTEENTZAT KIROL
ESKAINZA**

**OFERTA DEPORTIVA PARA MUJERES
MIGRANTES**

10 SAIO DOHAIN / 10 SESIONES GRATIS

**ASTEARTETAN / MARTES
15.15-16.15 H**

IZENA EMATEA AGORROSINEN URRIAK 28 ARTE
INSCRIPCIONES HASTA EL 28 DE OCTUBRE EN AGORROSIN

 Euzko Lehiaketa
Federazioa
 Bergarako
Udala
 Caritas
 Euzko Lehiaketa
Federazioa
 Nandank Nandank

EMAKUME MIGRATUAK ETA KIROLA

Helburua: emakume migratuak kirola hurbiltzea
Norentzat: 16 urteko gorako emakume migratuentzako
Ekitzat: 10 saio giakatu, montonarekin, plathes, dantza, yoga...
Prezioa: Duen
Data: asteartetan, azaroaren 5ean hasita eta urtarrilaren 21era arte
Ondua: 15:15-16:15
Izena ematea: Agorrosin Ekitza Gunean umaren 28ra arte

MUJERES MIGRADAS Y DEPORTE

Objetivo: facilitar el acceso al deporte de las mujeres migrantes
Dirigido a: mujeres migradas a partir de 16 años
Actividades: 10 sesiones guiadas (con montón, plathes, danza, yoga...)
Precio: Gratuito
Fecha: los martes, comenzando a 5 de noviembre y finalización el 21 de enero
Horario: de 15:15 a 16:15
Más información e inscripción: En Agorrosin Ekitza Gunea, hasta el 28 de octubre

النساء المهاجرات والرياضة
الهدف: دعوة النساء المهاجرات من فوجرا لزيارة مركز أنشطة أوروبا
موجهة: دعوة إلى النساء المهاجرات من سن 16 عامًا فأكثر
الأنشطة: 10 جلسات تحت إشراف مدربة من رياضة بولابيس، الرقص، البوغا، سيمينج
السعر: مجاني
التاريخ: أيام الثلاثاء، ابتداءً من 5 نوفمبر إلى غاية 21 يناير
موقع الحصة: من الساعة 15:15 ساعة 16:15 وتبرع مساهلة 415 الرافعة والربع مساهلة
Agorrosin Ekitza Gunea للمزيد من المعلومات والتسجيل، ابتداءً من 28 أكتوبر في مركز

+ info:
- Agorrosin Ekitza Gunea: 943777095 - agorrosin@bergarakus
- Bergarako Zerbitzuak: 943779145 - 658881760 - berrituta@bergarakus

Entitate kolaboratzaileak: Entidades colaboradoras del proyecto:

**JATORRI ANITZEKO EMAKUMEEN
ONGIZATE ETA GIZARTE-INKLUSIOA
JARDUERA FISIKO EDOTA KIROLAREN
BIDEZ**

2025

Argitaratzailea:

**Gipuzkoako Foru Aldundiko
Kirol Zuzendaritza Nagusia**

Koordinatzailea:

Oihana Zunzunegi Etxeberria

Egileak:

**Gipuzkoako Foru Aldundiko
Kirol Zuzendaritza Nagusia**

**Gipuzkoako Foru Aldundiko
Giza Eskubideetako eta Kultura
Demokratikoko Zuzendaritza Nagusia
Haurralde Fundazioa**

Ordiziako Udala

Bergarako Udala

Lege Gordailua: **D-215-2025**



Haurralde Fundazioari, Mestiza Elkarteari, OrdiziaKolare Taldeari, Bergarako: Caritas, Ndank Ndank, HHI-EPAr
eta emakume partaide guztfiei eskerrak zuen laguntzagatik.

JATORRI ANITZEKO
EMAKUMEEN
ONGIZATE ETA
GIZARTE-INKLUSIOA
JARDUERA FISIKO
EDOTA KIROLAREN BIDEZ

